



ARGIA

KATALINA ERAUSO

TRANSGRESOREA
GENEROAN,
ZAPALZAILEA
AMERIKETAN

» OIER GUILLAN: "EZ DA BEHAR GEHIAGO SORTZEA, BAIZIK ETA SORTZEN DENARI ERREPARATZEA"

» OIHALGILEAK: KLASE BORROKA KANTA ETA BERTSOETAN

» KONTXAKO BANDERA: AURTEN BI TXANDA IZANGO DITUZTE EMAKUMEEK ERE



JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Jakoba Errekondoren "BIZI BARATZEA" liburutik abiatuta, baratzea mundu askotarako ataria da. Oraingoan irudia eta komikia nagusi. Zortzi komikigile handien eskutik: Antton Olariaga, Asisko, Ainara Azpiazu, Mattin Martiarena, Joseba Larratxe, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriaga. Maialen Lujanbioren sarrerarekin



ESKURA EZAZU AGORTU BAINO LEHEN

© 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Net Hurbil
- 17 Hor dena gailu

IRITZIA

- 18 Estitxu Garai Artetxe
- 19 Gorka Moreno Márquez
Oihana Etxebarrieta
- 20 Jon Alonso



2008tik dabilta emakumezko arraunlariak Kontxako Banderan. Aurten, lehen aldiz, zortzi traineru sailkatuko dira. (ARGAZKIA: JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
FÁTIMA TALEB
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: SYLVINE FAU

SAKONEAN

- 12 | Oier Guillan: "Euskal kulturari begiratzeko modu bat dago krisian" / Danele Sarrugarte Mochales
- 22 | 'Katalina de Erauso' pastoralara: Pertsonaia gordea oholtzan / Onintza Irureta Azkune
- 27 | Kontxako Bandera: Berdintasunaren bidean, oinarri sendorik gabe / Jon Ander de la Hoz Arregi
- 30 | Harrapazka Eguna: Auzolana eta lehia nahasten direnean / Iñaki Sanz-Azkue (Aranzadi Elkarte)
- 34 | 'Othoi, çato etchera': Helmugara iritsi ez ziren 50 gutunak / Miel A. Elustondo
- 36 | Ez hitz egin klima aldaketaz, justizia klimatikoaz baizik / Jenofa Berhokoirgoien
- 44 | Denbora iruleak / Itxaro Borda

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

Agur armei

1950eko hamarkadan bipartidismoak bortitz jo zuen nekazarien erresistentziaren aurka. Oldarraldi horretatik bizirik atera ziren apurren kontra operazio militarra abiatu zuen Kolonbiako Estatuak 1964ko maiatzaren 18an. Milaka soldaduk, hegazkinek lagunduta, ezin izan zituzten garaitu gaizki armatutako 48 gerlari. Hori izan zen Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileen (FARC) sorrera. Orduz geroztik, gerrilla marxistak, armak eskutan, eskatu du herrialdearen aberastasunaren banaketa justuago bat –Kolonbian %1 lur emankorren %80ren jabe da–. 52 urteren ostean, eta borroka armatua agortutzat emanda, FARCEk armak utziko ditu estatuarekin adostutako zenbait neurriren truke.

Argazkia eta testua: Unai Aranzadi





“Sexu erasoen aurrean pauso bat gehiago eman nahi dugu gure haserrea gizarteratzeko eta ‘Aste Nagusia gelditu’ ekimena abiatu dugu”

Bilboko Konpartsak

argia.eus/multimedia



Tiritek ez dute pobrezia sendatzen

Munduan pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten arrazoiak eta erantzuleak aztertzen ditu Gobernu Kanpoko Erakundeen Kordinakundearen bideoak.



Stop gorrotoaren diskurtsoari

Hitzek eragina dute eta maiz talde gutxituen eta etorkinen kontra erabiltzen diren armak bilaka daitezke sare sozialetan.



TTIParen negoziazioek “huts egin dute”

Jon Ander De la Hoz Arregi
@delarregi

Alemaniako kantziler orde eta Ekonomia ministro Sigmar Gabrielek adierazi du huts egin duela AEB eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko akordioak. Arrazoa: “Europarrok amerikarren nahiei men egin nahi ez izana”.

Greenpeaceren Herbeheretako sailak apirilean filtratutako dokumentuek azaleratu zuten egoera: Europar Batasunak eta Amerikako Estatu Batuek zailtasunak dituzte TTIPen inguruko akordioak erdiesteko. Orain, baieztatu egin du hori Sigmar Gabriel Alemaniako kantziler orde eta Ekonomia ministroak ZDF katean eginiko adierazpenak dira. Gabrielek arabera, akordioari dagozkion “gauzak ez

dira mugitzen ari”. Atlantikoaz gaindiko hitzarmenaren inguruko 14 bilera erronda egin dituzte bi aldeek, baina ez dute akordiorik lortu orain artean.

Greenpeacek apirilean argitara eman zituen txosten haien arabera, EB eta AEBak gehien muturtzen zituen gaiak kosmetikoak, ingurumenaren babesa eta genetikoki eraldatutako izaki bizidunak ziren. Txosten haiek New Yorken izandako 13. bilerari zegozkion. Lau hilabete geroago egoerak blokeatuta jarraitzen duela adierazi du Gabrielek.

Banca y Negocios atariaren arabera, baliteke negoziazioak AEB, Alemania eta Frantziako hauteskundeak igaro arte bertan behera utzi izana. Lehenengoak azaroan izango dira; beste bi herrialdeetakoak, 2017an.

“Ez dut uste ez nik, ez nire haurrek, mendia inoiz ikusiko dugunik lehen zen bezala”

ADOLFO VÉLEZ, ARTAXOAKO ALKATEA

Abuztuaren 25ean zigarro baten hondakinek piztutako suteak ia 3.000 hektarea erre ditu Tafalla eta Puiu artean. Hiru hamarkadetan lur eremu zabalena kiskaldu duen sutea da hau. Artaxoako alkatearen hitzetan, “herriko lurren erdia baino askoz gehiago erre da. Pinudiak, erkameztiak, saskak... Ez dut uste ez nik, ez nire seme-alabek, mendia inoiz ikusiko dugunik lehen zen bezala. Hau bukatzean eseri eta balantzea egin beharko dugu”. **RADIO EUSKADI (2016-08-26)**



HERIOTZA ZIGORRA 2015

EXEKUZIOAK

TXINA ● 1.000 +
[Estatuak ez du datu ofizialik ematen]

IRAN ● 977 +
Aurreko urtean baino 234 gehiago, batzuk adin txikikoak.

PAKISTAN ● 326
Aurreko urtean baino %76 gehiago. Gehienak urkatuta.

SAUDI ARABIA ● 158 +
Gehienak, burua moztuta.

AEB ● 28
1991. urteaz geroztik, kopururik urriena.


Ekialde Hurbilean, segurtasun publikoari edo estatuaren segurtasunari ustez edo errealki mehatxu egiteagatik aplikatu da heriotza-zigorra.

Heriotza-zigorra aplikatu duten herrialdeak

2015	25
2014	22

Hiru estatu horien artean, Txad dago. Exekuziorik agindu gabe 12 urte pasa ostean, 10 lagun fusilatuta zituen iaz, Boko Haram taldeko kide izateagatik.

58 estatutan INDARREAN



Munduko 103 herrialdek indargabetu dute heriotza-zigorra, delitu guztietarako

Infografiaren egilea: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

2015eko abenduko datua. ITURRIA: Amnesty International.

Europar, Bielorrusia da heriotza-zigorra legez onartzen duen estatu bakarra. 2015ean ez zuen inor hilarazi.



Aginte makila Madrilen dela erakusten du Otegiren inhabilitazio auziak

Xabier Letona

@xletona

Urte hasierako *El Mundo*, *La Razón* edo enparauen Otegi auziko lerroak irakurrita, argi ikusten da irentsia zute-la Arnaldo Otegi lehendakartzarako hautagaia izango zela, EH Bilduk berau aurkeztea erabakiz gero behintzat. Iker Casanova EH Bilduko parlamentarioaren aurrekaria hor zegoen eta juridikoki auzia oso argia zen: epaian inhabilitazio bereziak zein kargurako diren zehaztu behar dira. Ez Casanovarenean ez Otegi-renean ez ziren zehaztu.

Baina ez, hemen ekimen politikoa ez dago Konstituzio Auzitegiaren esku PP-ren esku baino, eta honek pasatzen utzi zuen Casanova auzia, baina ez du berdin egin Otegiren kasuan. Otegi Otegi da, eta oraindik atera diezaiokete etekinik Espainiaren politikako une berezi honetan. Baita EAEn ere: desagertzera bidean doan EAeko PP nola berpiztu, ez bada halako amu zaharrekin?

Behin erabakita Otegi auzia politikoki erabiliko zuela, gainerakoak arazo juridiko-teknikoak dira. Otegi Batera-gune auziko epaian "inhabilitazio berezia" jartzeak ez badu balio, topatuko

da besterik. Zer? Sufragio pasiboa, hau da, hauteskundeetan hautatua izateko eskubidea. Otegiren aurkako epaiak dio sufragio pasiborako inhabilitatuta dagoela bere zigorrak irauten duen bitartean.

Espainiako Fiskaltzak uste du bere inhabilitazio zigorra eta sufragio pasiboarena 2021ean bukatzen direla – inhabilitazio zigorra 2014an hasi zelako indarrean, ordura arte Otegi beste inhabilitazio zigor bat betetzen ari zelako—. Otegiren defentsa daraman Iñigo Iruinen arabera, ordea, sufragio pasiboaren zigorra espetxe zigorrari lotua dago eta, beraz, espetxe zigorra betetzen denean, sufragio pasiboarena harekin iraungitzen da. Iruinen esanetan, Espainiako Konstituzio Auzitegia eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia oso argia da gai honetan.

Baina horiek guztiak zirrikitu juridikoak dira. Lehenik arazoaren muina dago, arazo politikoa: dena da ETA doktrina. Oraindik ere, horrekin Madrilek erabaki dezake Euskal Herriko hauteskundeetan zein herritar aurkez litekeen eta zein ez. Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak argi du hori eta lehen unean Otegiren hautagaitza baztertu zuen.

EKONOMIAREN TALAIAN

Greba baten irakaspenak



Juan Mari Arregi

Bilboko Arte Ederretako museoan Manpower enpresarentzat –Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Aldundiak eta Bilboko Udalak zuzenduriko patronatuak azpikontratatuak– lanean ari diren 34 langileek 41 eguneko greba egin dute uda hasieran. Langileriak eta administrazio publikoek irakaspen ugari atera ditzakete borroka horretatik, eta ez soilik lerro hauek idazterakoan greban ari diren Guggenheim Museoko hezitzaileek, baita gainerako langileek ere.

Lehen irakaspena. Borroka egin daiteke lan prekarietatearen eta baldintza miserableen kontra eta lor daiteke soldata duin eta justua, kolektiboa txikia izanik ere. Arte Ederretakoek hilean 882 euroko soldata zuten gehienez ere, urtean hamabi paga. Greban irauteak, batasunak, imajinazioz egindako eguneroko mobilizazioek eta asanbladek lortu dute urtean 10.400 eurotik 20.500 euro kobratzera igarotzea, ultra-aktibitate mugagabea, subrogazio eskubidea, hitzarmenak ezartzen ez direnean egoera horri aurre egiteko blindatzeko aukera, antzinatasuna onartzea...

Bigarren irakaspena. Baldintza prekarioak administrazioek bultzaturik ezarri zituen azpikontratak. Ez daitezela orain etorri kalitatezko enpleguarengatik arduratzen direla esanez. Administrazioek (Jaurlaritza, Aldundia, Udala...) hasiera batean negoziatzeari uko egin diote eta grebaren eragina saihesten saiatu dira gutxieneko zerbitzuak erabiliz. Euren diziplina inposatu nahi izan dute grebalarien eredu zabal ez zedin. Baina ahalegin horretan porrot egin dute.

Hirugarren irakaspena. Greba bat ez da sekula galtzen. Baliteke helburu guztiak ez lortzea, baina beti balio izango du erakusteko langileen quintasuna.



Burkiniaren kontrako gurutzada ez da amaitu

FRANTZIAKO ESTATUA. Burkinia debekatu dute Frantziako hainbat udalek, "Frantziak eta leku erlijiosoei atentatu terroristak sufritzen dituzten uneotan, erlijio batekiko atxikimendua nabarmen erakusten duen arropa" ez dela egokia argudiatuta. Irudian ikus daiteke nola pistoladun lau polizia gerturatu eta tunika urdina erantzera behartu duten emakume bat Nizako hondartzan, burkiniaren aurkako debekua aitzakia hartuta. Frantziako Estatu Kontseiluak ebatzi du debekua "oinarrizko eskubideen kontrako eraso larri eta ilegala" dela, baina hala ere, 30 bat herrik neurria mantentzea erabaki dute eta bi udaletan baino ez dute utzi bertan behera.

Pentsio sistema publikoa aldarri Txilen

Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

1981ean privatizatu zuten Txileko pentsioen sistema, Pinocheten diktaduran. Estatu mailako arazo bilakatu da azken urteetan, erretirodunek jasotzen dituzten pentsio baxuengatik. Zenbateko hauek kudeatzen dituzten enpresa pribatuen aberasteak ere hautsak harrotu ditu.

Funtzionamendua

AFP (Pentsio Funtzen Administrazioak) enpresak sortu zituzten privatizazioarako, Estatuaren esku-hartzea gutxitu eta pentsioak inbertsio-funtzen esku utziz. Langileak soldataren %10 bideratzen du AFPetara.

Hutsuneak

Sistemaren bideragarritasuna zalantzan dago. Pentsio baxuek urte gehiago lan egitera behartzen dituzte herritarrak eta Gobernuak laguntzak jarri ditu martxan. Enpresek langileen %63aren pentsioa kudeatzen dute.

Mobilizazioak

Hainbat mobilizazio izan dira azken bi hilabeteetan. Abuztuaren 21ean izan da azkena eta ehunka mila pertsona bildu dira Santiagon pentsio sistema publikoa aldarrikatzeko. Ez dira mobilizazio gehiago baztertzeko.

LURRIKARA



290

hildako utzi ditu gutxienez Italia erdialdean jasandako lurrikarak.

4.500

biztanle ditu Norcia herriak. Ingurukoekin adinako astindu sismikoa izan du, baina ez da inor hil, lurrikaren aurkako eraikuntza planari esker. Beste herri batzuetan halako prebentzio neurriak hartu ez izana kritikatu da.



ERRAUSTEGIAZ GALDEKETA

GuraSOS elkarteak erraustegia egin edo ez erabakitzeko parte-hartze prozesua eskatu eta ezetz erantzun du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Helegitea jarri du elkarteak eta epai irmoa urrian jasotzea espero dute. Horrek argituko luke ea Aldundiaren ezezoak herritarren parte-hartze eskubidea urratzen duen.



TRANSFOBIAREN AZKEN BIKTIMA

Hande Kader ekintzaile transexuala hil dute Istanbulen. Turkiako hiriburuko kaleetan agertu da gorpua, erreta eta mutilaturik. 2008tik homofobiarekin eta transfobiarekin loturiko 1.993 hilketa izan dira herrialdean.



ZENTSURA SALAKETA

Nafarroako Komiki Azokak H28 aldizkariko bi lan zentsuratu dituela salatuta dute. Zehazki, Opus Dei eta pedofilia eskandaluak lotzen dituen biñeta, eta Burlatako 'Tortura' zioen margoketaren inguruko.

Holandan erotu dira: presoak gutxitu eta espetxeak ixten ari dira



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Espanian edo Frantzian –Euskal Herria barne– presondegia berriak eraikitzen dituzten bitartean, Holandan atxilotuak %27 gutxitu dira 2011tik eta espetxe sobranteei alternatibak bilatzen dizkiete: batzuk itxi, beste batzuk etorkinentzako aterpetxe bihurtu eta beste batzuk atzerriko estatuei eskaini haien kondenatuak ostatzeko alokairuan. Espetxe politikan ere alternatibak badiren seinale.

Gipuzkoa Zutik mugimenduko gazteek deiturik ekainaren 18an Zubietako oskalkizunean bildu zirenek zortea izan zuten entzuteko Arrats elkarteko ordezkari baten hitzaldi hunkigarria: Gipuzkoako makro-kartzela berriaren eraikuntza salatzen zuen eta nolaz eztabaida gehiago gabe uzten diren bazterrean Holandan eta bestetan arrakastaz darabiltzaten espetxe politika ezberdinak, presondegia itxi edo atzerritarrei alokatzeraino lortu dutenak preso kopurua murriztearekin. Biharamunean Arratseko Josetxori arrazoi emango zion Holandako Justizia ministroak, nahiz eta Euskal Herrian inor enteratu ez.

Herbeheretako Justizia ministroak jakinarazi du azken bost urteetan hango espetxetako presoak gutxitu direla 15.170tik 11.005 arte, %27ko murrizketa. Itsasoaren beste aldetik *New York Times*ek titulatu zuen: “Holandak arazo bitxi bat dauka: presondegia hutsak”.

Adam Taylorren kronikak aurreratu zituen gertaera bitxiaren arrazoiak. Lege urraketak ez dira ugaritzen ari Holandan, gauza nabarmena inguruko herrialde gehienetan paranoia sekuritarioa hedatu ahala iritzi publikoak salatzen duelako segurtasunik eza handitu dela eta delituak ugaritu.

Holandan epaileek zigorrak bideratu dituzte hein handi batean isun ekonomikoetara edo kondenatuak gizartearen zerbitzurako lanak egitera edo zaintza elektronikoa jasatera, eskumuturreko edo orkatilako kontrol tresna bidez.

Honek ekarri du Holanda izatea presondegia itxi dituzten herrialde bakarretakoa. 2013rako 19 itxirik, iragarri berria dute bost gehiago zerratzeko asmoa. Honek kontraste egiten du Europako herrialde askorekin, tartean espetxeak jendez gainezka dauzkan Frantziarekin edo makro-kartzela sare berria osatzen ari den Espainiarekin.

Herbehereek ere nozitu zuten beren *espetxe booma* 1980ko hamarkadan, eraikin berriak ugarituta 3.500 preso hartzeko ahalmenetik ia 17.000kora handituz. Urteak pasa ahala, eta espetxe politika berriaren eraginagatik, Hago gobernuak aurkitu da ohe gehiegi eta apopilo gutxiagirekin. Alabaina, mundu globalizatuak beste bi bezero mota eskaini dizkio hustutako presondegietarako.

Dozena bat espetxetan asilo eske iritsitako errefuxiatuak sartu dituzte holandarrek. *National Geographic* aldizkariak argazkitan ezagutarazi du handi eta famatuena, Haarlem hiriko De Koepel presondegia, Siria, Afganistan eta beste leku askotatik iritsitako 300 gizon eta emakumez goiti biltzen dituen. Giza eskubideen aldeko ekintzaileek salatu dute kartzela bat ez dela iheslariak edukitzeko leku egokia; aldiz, gobernutik harrotasunez aldarrikatu da Holandako espetxeetako bizi kalitatea.

Baina etekin handiagoko apopiloak ere aurkitu dizkiete hustutako ziegei: Belgika eta Norvegiatik eramandako zigortuak. Preso gehiegienezako espetxe

gutxiegi dauzkatela eta, Osloko agintariek hiru urterako tratua egin dute Hagakoekin, aldaketa onartzen duten preso norvegiarrak edukitzeko Norgerhavengo espetxean.

Dutch News agentziaren arabera, atzerriko presoak ekartzea pozik hartu dute presondegietako langileek. 700 funtzionario lanpostu daude arriskuan ondoko hilabeteetako itxiera planak egia bihurtzekotan eta horien sindikatuek ere presio egiten dute.

Zigorra eta aukera-leiho

Europa baitan Suedia da urteotan presondegietako biztanle kopurua jaisten ikusi duen beste herrialde nabarmena, azken hamar urteotan 5.722tik 4.500era murriztuz. Marka txarra ez da 9,5 milioi biztanle dauzkan herrialde batentzako. Espetxeen laurdena itxi omen dute azken urtetan.

2014an *The Guardian* egunkariari esan zion Suediako presondegietako zuzendari nagusi Nils Öberge: “Gure lana ez da zigortzea. Espetxerako kondena bera da zigorra: beren askatasuna kendu diete. Beren zigorra da gurekin egotea”.

Aurrerago, kazetariak galdeturik ea iritzi publikoak nola zeramatzan kontua, zigor arinegiak jartzen direla eta denetan ari direla gogortzen kondenak eta presondegietako arauak, dio Öberge: “Jendeak une bakoitzean iritzi bat eduki arren, zuk justiziaren alorrean epe luze-ko estrategia burutu behar duzu. Ezin





Muhammed Muheisenen argazkian, Fadi Tahhan errefuxiatu siriar gaztea kantari Oud izeneko tresna jotzen ari da De Kopel espetxe birmoldatuan. 1880an eraiki zuten zilindro forman presoak isolamenduan edukiz erdiko dorre batetik kontrolatzeko. 1979an OMA arkitekto bulegoak diseinatu zuen eraikinaren zaharberritzea, gehituz gaur De Kopelek ezaugarri nabarmenena duen kupula panoptikoa, puntu gorenean 46 metroko altuera daukana.

duzu gaur gauza bat egin eta biharamunean hura baztertu. (...) Pertsona bati askatasuna kentzen diozunean sortutako aukera-leiho txiki horretan zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta hobeto joango dira gauzak epe luzean”.

Ez dirudi, hala ere, Herbehereek edo Suediak ezarritako estrategiek jarraitzaile gehiegi dutenik munduan. Hala adierazten du *World Prison Brief* buletinaren -ICPR Presondegien Ikerketarako Nazioarteko Institutuak plazaratzen duenak- azken informeak. 2000.eko zifrekin alderatuz, 15 urteotan munduko presoek kopurua %20 hazi da.

Ikerlanaren arduradun Rom Wamsleyk idatzi du: “Oso kezkarria da gaur egun munduan 10,35 milioi jende egoitea espetxeetan zerraturik. Larriena da presoek kopuruak hazten segitzea eta izugarri gainera zenbait herrialdetan.

Honek eraman beharko lituzke politikariak aztertzeraz ea zer egin dezaket atxilotu kopuruak gutxitzeko, kontutan harturik zein garestia den espetxeratzea eta zein eztabaidatua dagoen espetxeratzearen eraginkortasuna, ahaztu gabe eraikin horiek jendez gainezka daudela. Gainera, preso hartutako emakumeen ugaritze proportziorik gabea ere oso deigarria da”. Gatibu dauden emakumeak %50 ugaritu dira 15 urteotan, اندrazkoak direlarik presoek %6,8.

Eskualdeka begiratzuz gero, Afrika eta Asia dira proportzioan preso gutxien dauzkaten kontinenteak, 100.000 biztanleko 100 baino gutxiago. Ozeania ez dabilkie urrun, nahiz eta urteotan %60 ugaritu dituen atxilotuak. Aldiz, Amerika da gehien dauzkana, 387. Gezurra dirudien arren, AEBak dira -Seychelle uharteetan ondoren- munduko txapeldun

tristeak, 698 preso ehun mila biztanleko, eta gainera Erdi eta Hego Amerika dira kondenatuak gehien ugaritu diren lekuak, %118.

Oso hartuta, Europak ehun mila biztanletik 192 dauzka espetxean. Hamabost urteotan asko urritu dira presoak Ekialdean, Errusian %40 eta ekialdeko beste herrialdeetan %42 gutxiago. Ordainetan, gainerako gure European ugaritu egin dira: %12 Ipar European, %6 Mendebaldekoan -Frantzia barne- eta %27 Hegoaldekoan, Espainia barne.

Gurean, Frantziako estatuak 100.000 herritarretik 95 dauzka kaiolan gatibu, Espainiak 136. Portzentaietatik kanpo geratzen dira batean eta bestean zigortuei ematen zaien tratua: espetxeratuen eguneroko bizi baldintzak, bisitetako minutuak eta baldintzak, ikasi edo aisialdirako baliabideak... ■

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

f i

Oier Guillan, antzerkilaria

«Euskal kultura baino, euskal kulturari begiratzeko modu bat dago krisian»

Elkartasun basatia sumatzen ahal da behinola taberna-zulo berak konpartitu zituztenen artean.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: ANDONI CANELLADA/A.P.

Noiz eta nola hasi zinen idazten?

Esango nuke txikitatik eduki dudala idazteko ohitura edo bulkada. Ikastolan oso lotsatia nintzen eta sormenaren bitartez iristen nintzen besteengana; idatziz, gehienetan. Gero, plazaratzeko pausoa ematea... 18 urteren bueltan hasi nintzen jarraiago idazten, batez ere poesia, eta bete-betean sartu nintzen fanzineen munduan. Gainera, garai hartan ari zen sortzen Mikelazulo, eta horren bitartez, hasieratik lotu genituen idazketa eta oholta, nahiz eta hasieran errezitaldiak egin eta ez hainbeste antzerkia.

Zer ekarri zizun fanzineetan aritzeak?

Oso esperientzia polit eta subjektiboak ditut gogoan. Idazketan, bakarka hasten zara, baina izaera kolektiboari eta fanzineen istorioari esker heldu nion.

Zergatik da hain garrantzitsua taldea?

Beldurra kentzeko balio du, konfiantza hartzeko, zure burua esploratzeko, kontrastatzeko: mundu oso bat deskubri-

tzen duzu. Hasieran askoz gauza instintiboagoa zen, ez zegoen halako gogoeta intelektual eta politikorik.

Mikelazuloren sorrera gertutik bizi izan zenuen, beraz.

Bai, baina nik ez nuen sortu. Ni izan nintzen Mikelazulok nahi zuenaren lehen belaunaldiaren parte. 1995ean sortu zen.

Euskal Herriko egoera oso bestelakoa zen, eta Oreretakoa, zer esanik ez: eztanda jarrai bat zen hau. Garai hartan oso gauza arraroa zen espazio bat egotea zeinean, adibidez, programazioa lehenesten zen, eta ez barra.

Askotan galdetzen diot neure buruari ea zer izango zen dena baldin eta Mikelazulo egon izan ez balitz, eta, ez dakit. Nik uste dut oso pieza klabea izan zela izaera kolektiboa hala errotzeko eta hainbeste urtetan irauteko. Argi daukat halako proiektuak benetan direla bul-tzatzaile edo eragile, espaziotik harago planteatzen duenagatik.

Mikelazuloren dimentsio politikoa azpimarratu duzu.

Ezkerraren ikuspegitik begiratuta, jende asko biltzen zen hemen, eta ez denak zehatz-mehatz korrante berdinekoak ezta hain ezkerrekoak ere. Hemen ikasi genuen egiten dugun gauza bakoitzak diskurtso bat behar zuela, eta ondorioz, egiten dugun ezer ez da kasuala politikoki, kontraesanak kontraesan, nahiz eta batzuetan gehiago bilatu eztabaida sustatzea eta ez hainbeste diskurtso bat eraikitzea.

Nola laburbilduko zenuke Mikelazuloko esperientzia?

Elkargunea eta bizi-laboretegi itzela, baita arte-laboretegi basatia ere; barra-baskeriak egin ditugu.

Bereziki gogoan duzunik?

Niretzat bereziki indartsuak izan ziren kultur internazionalismoaren barruan egin genituen hainbat bidaia. Kanpaina bat egiten genuen, guztiz autogestiona-



Oier Guilan

1975, Larratxo (Altza auzoa, Donostia)

Antzerkilaria, idazlea, kazetaria. Hainbat poesia-liburu argitaratu ditu eta hainbat antzezlanetan parte hartu. Harreman estua du Errenteriako Mikelazulo elkartearekin eta, 2008az geroztik, Metrokoadroka sormen-laboretegian dihardu lanean. Hainbat komunikabiderekin kolaboratu du eta Edo! argitaletxeko kide ere bada.



“Antzerkian, nire bidea izan da autorea akabatzea eta norberaren botereari uko egitea. Nire ekarpena egin dezaket, eta inportantea da ahalik eta ondoen egitea eta testua balioestea, baina ez da sakratua”

tua, dirua lortzeko eta kanpora joateko, eta han kultur proiektu bat aurkezten genuen.

Bereziki dut akorduan Ekuadorko komunitate kitxua batean egin genuen emanaldia. Paramilitarrek zanpatuta bizi ziren eta guk antzezlan bat egin genuen haien aurrean. Mendebaldeko eran antzeztu genuen eta halako zerbait ikusten zuten lehenengo aldia zen. Emanaldi hura da inoiz egin dudana emanaldirik inportanteena. Azkenean foro bat egin genuen publikoarekin, guztiok negarrez ginen: gu haien historiak entzuten, haiek gureak... Orduantxe ulertu nuen zer izan zitekeen benetan egiten dugunaren zentzua. Gero, hemen, ez da gauza bera, baina horren arrastoak betiko irauten du.

Eta zer da, bada, egiten duzuenaren zentzua?

Azkenean, beti bilatzen duzu komunikazioa, hemen ere bai, eta lortzen da, batzuetan bestetan baino gehiago. Baina han ez zegoen halako iragazkirik, ez ze-

goen tartean komunikabiderik, ez nola saltzen dugun gure burua, ez argazkilaririk, ez prentsarik, ez ondo geratu nahirik, ez zegoen programatzailerik... Komunikazio basatia zen, aurrez aurre: benetan ikustea ea egiten dugun hori kaka bat den ala ez. Jendea ez zihoan aurreiritzi batekin, kritika bat edo beste irakurri zuelako. Jendea joan zen eta eman genionak balio zion eta ez zion balio, eta kito. Ondorioz, gu oso egoera bortitzean geunden, tresna bakarra geneukalako: zerbait komunikatzea. Inork ez zuen baloratzen gure dramaturgia, gure estetika, gure ibilbidea... Egiten dugunaren muinera joan behar izan genuen, bete-betean.

Lan kolektiboaz eta oholtzaz aritu gara orain arte. Hel diezaiegun orain zure poesia-liburuei.

Biografia ofizialean agertzen den lehen liburua baino lehenago egon ziren beste batzuk, baina saiatu naiz ezkututzen. Bestalde, Mikelazulok hainbat liburu

kolektibo argitaratu zituen, poesiaren inguruan batez ere, eta guretzat oso garrantzitsuak izan ziren.

Gero, hainbat lehiaketaren bidez publikatu zenituen lanak.

Armairutik ateratzeko modu bat zen, azken batean. Lanak publikatzen zituzten lehiaketetara aurkezten nintzen batez ere. Garai hartan ez neukan segurtasunik nire buruarengan eta gauzak bidaltzen nituen, ez nekien oso ondo nora, eta agian, publikatzen bada, bestela ikusten du lana norberak ere.

Eta, ondoren, *Eskuen sustraiak*, Susaren eskutik. Lehiaketarik gabe, estreinakoz.

Susako familia ezagutzea oso inportantea izan zen niretzat. Nik uste dut, poesia atalaren bitartez, apustu handia egin dutela pertsona batzuekin. Hasi-ran bidali niena oso kaskarra zen. Oso zorrotzak izan ziren eta niretzat ikasbide handia izan zen. Hor ikusi nuen zer garrantzitsua den editore baten figu-

ra, haren inplikazioa eta haren ahotsa, nahiz eta lerro artean geratu. Arte bat da editorearena, artisautza bilakatzen ari da, eta ez dakit gehiegi esatea ote den, baina iruditzen zait desagertze-bidean egon daitekeela.

Eta antzerkia idazterakoan, ezberdina ote da prozesua?

Niretzat bi bide paralelo izan dira beti, poesia idaztea bakarka eta testuak idaztea taldean jokatzeko: urruntzen eta gerturatzen joan dira. Hasiera batean, gatazkatsua zen harreman hori. Gero, urteak pasata, onartu egin nuen, onartu nuen biak behar nituela, baita, nolabait, denborarekin, bat egin zezaketela. Uste dut lortu dudala, antzerkia idazteko modu bat topatu baitut.

Zein da antzerkia idazteko bide hori?

Autorearen figurari uko egitea. Ez pentsatzea antzerkia idazten duen idazlea idazle bat denik. Taldekide bat gehiago izatea, prozesu baten parte, eta baztertzea autorearen figura hori zeinak idazten baitu obra bat, burutua, sakratua, eta norbaitek hartzen duenean, eta taularatzen, dena errespetatzen baitu, puntuak eta komak eta akotazio guztiak. Errespetatzen dut figura hori, eta agian egon behar du halako eredu batek ere, zeren, estetikei buruz ari garela, denetik egon behar du.

Hala ere, nire bidea izan da autorea akabatzea eta norberaren botereari uko egitea. Nire ekarpena egin dezaket, eta inportantea da ahalik eta ondoen egitea eta testua balioestea, baina ez da sakratua. Boterea taldean dago eta taldeak erabakiko du non gauden eta nora goazen. Gainera, erlaxatzen zarenean eta autorea akabatzen duzunean, deskubritzen duzu testuaren dimentsio oso eder bat. Askoz urrunago iristen dira testuak, bai behintzat gure esperientzian.

Mr. Señora (Txalaparta, 2016) kaleratu berri duzu, ordea, zazpi antzezlan biltzen dituen liburua. Zergatik argitaratu taulartzekoa dena?

Oso antzerki gutxi argitaratu da, baina badago eskaerarik, eta jendeak jarraitzen du 80ko hamarkadako testuetara jotzen. Ez dago testu garaikiderik, nahiz eta asko egon: ez daude eskura. Badago beste teatro bat eta atera behar da.

Nik neuretik egin dezaket. *Arra.Arra*-roarekin ikasi nuen oso garrantzitsua

zela kezka garaikideak islatzen dituzten testuak ateratzea, tresna bezala, jendeak taularatu ahal izateko bere kezkek, baina baita beste idazketa mota batzuk egon daitezkeen ere. Jendeak hartzen zuen *Arra.Arra* eta oso libre sentitzen zen: ez zuten zertan dena erabili, ez zuten zertan akotazioetan dioena zehatz-mehatz egin.

Nik imajinario bat eta testu batzuk planteatzen ditut: abiapuntu bat. Talde batek imajinario hori onartzen badu, material horiek erabil ditzake, eta bereak sortu; libre sentitu aktore-sortzaile aritzeko, horretan sinesten baitut nik. Edo agian, dantza garaikideko norbaitek hartzen du *Mr. Señoraren* puska bat eta adierazten du gorputzaren bidez nik hitzez esana. Zergatik ez? Zergatik gelditu beti gauzak egiteko modu batean? Jendea irits dadila ahalik eta urrunen.

Metrokoadroka sormen-laboretegiaren barruan aritzen zara aktore-sortzaile.

Hasieran, plataforma artistikoa zen, hainbat mintzairarekin. Gero, antzerkiak indar handiagoa hartu du. Oholtza izango da arte bakarretakoa zeinean beste arte guztiak barruan egon daitezkeen. Modu naturalean bilakatzen da akzio-elkargune. Eszenaren bitartez da aldi bakarra zeinean guztiok egon gaitzkeen zerbait egiten, izan fisikoki eszenan edo zuzendaritzan, eszenografia egiten, kartela egiten, musika, argiak...

Nola muntatzen duzue ikuskizun bat?

Ez garelako enpresa bat eta ez gaudelako dinamika horren barruan, proiektu bakoitzak bere historia dauka. Hainbat akuilu egon dira. Norbaitek ideia bat dauka, taldean planteatzen du, eta hor hasten dira aliantzak sortzen modu na-

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia:

**JARRI PUBLIZITATEA
HEMEN**



ARGIA

943 371545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

ogiaren egia



**Galparsoro
OKINDEGIA**

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantzako ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Memoria gara
izan zaitetz babesle



EUSKAL memoria

943 244 584 - 688 693 776
www.euskalmemoria.eus



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailtarako

Otadui Gotzaina, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
943 783 447 / 617 442 466
www.tanatorio-gipuzcoa.com



POZAZERGATIK.BLOGSPOT.COM

Argazkian Metrokoadroka Sormen Laborategiak ekoiztako Poza antzerki obraren eszena bat.

Elkartasun basatia

“Batzuetan iruditzen zait askoz probokatzailleagoa eta bortitzagoa dela maitasuna erakustea, modu irekian, oso modu biluzian; elkartasuna agertzea inongo lotsarik gabe. Iruditzen zait batzuetan horrek krak handia egiten diola jendeari, akaso pankarta batekin eta diskurtso batekin joan izan natzaienean baino krak handiagoa”.

turalean, detektatzen da bakoitzaren momentua, agenda, eta taldea sortzen da. Koordinazio minimo bat dago, pape-
rak eta beste kudeatzeko, baina, proiektu bakoitzean, proiektuan daudenek agintzen dute, ez dago zuzendaritzarik. Nahiz eta nik planteatu ideia bat, behin taldea sortuta, boterea galtzen dut guztiz. Niri kontrol-galera gustatzen zait. Azkenean, talde-lana egoteak ez du esan nahi denek gauza bera egiten dutenik eta denek berdin. Rolak daude eta hori

ondo dago. Kontua da dena negoziatzen dela. Hori ere ikasi dugu: pertsona bat aktore hobea bada, benetan, eta beste, berriz, abilagoa jantzigintzan, bada ez du zentzurik ni joatea traperotara alkandora bila. Onar ditzagun gure mugak eta gero negozia ditzagun erabaki garrantzitsuak denon artean. Talde-lana bada, baita ere, norberaren dohainak eta mugak onartzea, eta denonak uztartzea.

Egin dituzuen ikuskizunen artean, baten batek utzi al dizue arrasto berezirik?

Poza oso klabea izan zen guretzat. Oso ondo funtzionatu zuen, nahiz eta oso esperimentalta izan eta oso modu kamikazean egin. Obra horretan, urte askoren ondoren, topatu genuen benetan nola esan nahi genituen gauza asko; kokatu egin gintuen, nolabait.

Non?

Lehenengo aldiz, modu intentsiboan egin genuen lan; ordura arte, arratsalde soltetan biltzen ginen. Orduko hartan, ordea, hamabost egun hartu genituen eta leku itxi batean bildu ginen talde osoa, eta buru-belarri lan egin: sorkuntza basatia izan zen. Lehenbiziko aldiz abiatu ginen material autobiografikoe-tatik, eta autofikzioa egin genuen, horren zentzu zehatzean: material propioetatik abiatu ginen, baina eraldatu egin genituen, eta fikzioa eraiki. Lehenbiziko aldiz sentitu genuen bazegoala

modu bat testu poetikoak gorputzetik pasatzeko. Zuzendaririk ez genuen, bost taldekideok zuzendu genuen. Abiapuntuan, irudi bisual poetikoak eta inprobisazioak izan genituen, guztiz fisikoak, eta umore absurdoa ere sartu genuen, baina ez hainbeste txisteak, baizik eta lan fisikoari tiraka.

Zure ibilbideari erreparatuta, zer-nolako balantzea egiten duzu?

Oso errerealizatu sentitzen naiz, eta oso pozik, batez ere ez naizelako bakarrik sentitzen, baizik eta zerbaiten parte. Nekea ere sentitzen da, eta prekarietatea; urteek aurrera egin ahala, gero eta zama-suagoa da. Batzuetan ikusten ditut asko miresten ditudan aktoreak, 60-65 urtekoak, kamioia kargatzen bolo bat eta gero, eta benetan kezkatzen naiz, akaso ni ere gero eta gertuago nagoelako hortik. Nola liteke hain gutxi baloratzea? Zer egiten ari gara hainbeste eman digun jende horrekin? Ez daukat soluziorik. Oraingoz salbatzen gaituena da kolektibitate baten parte lanean jarraitzea, arriskatzen bai politikoki bai estetikoki, horrek dakartzan kontraesan, gatazka eta une zail guztiekin.

Zure ikuspegitik, nola daude arte eszenikoak gaur egun?

Mikelazuloko ibilbideak zerbait erakutsi dit: badago ezagutzen ez dugun errerealitate bat, badago gauza miresgarriak egiten ari den jende-kopuru bat, imajinatzen duguna baino askoz gehiago, eta ez dugu aitortzen, ezta onartzen badagoenik ere. Antzerkian, hain zuzen, hori gertatzen da: hainbat forotan argi ikusten da badagoela material esperimental eta humano oso interesgarri eta potentia. Askotan irakurri izan dut euskal kultura krisian dagoela baina nik uste dut euskal kulturari begiratzeko modu bat dagoela krisian. Batzuetan ez da behar beste zerbait sortzea edo gehiago sortzea, baizik eta sortzen denari erreparatzea. ■



Uda-mudan

Udaren beroak albiste eskasia ekarri ohi du berekin. Joko-eremu politikoan akordio tazitu moduko bat dago udako hilabeteetan erritmoa moteltzeko. Aski ezagunak dira udako sugeak, komunikabideetan betelane-rako baliatzen diren muntarik gabeko gertakariak. Bada, hondar-mondarretan dugun uda hau oso bestelakoa izan da.

Iñigo Urkullu lehendakariari esker-tu behar diogu etena etetea. Abuztuan aurkeztu dituzte alderdi politikoen zerrendak eta horrek arreta mediati-koa berriro ekarri du “euskal zera”-ra. Ezin uka, ordea, Madrilgo gobernu-osa- ketaren tragikomediak Euskal Erdia- ren agenda bahituta duela oraindik. Hautes-zita aurreratzeko erabakia baldintzatzeaz gain, alderdi abertzaleen kanpaina Espainiaren antitesian oi- narritzen ari da.

Batetik, EAJren mezua ez da Espai- niako hauteskundeetan erabilitakoaren oso ezberdina izango. *Lehenik Euskadi* esloganak honi guztiari ematen dio aterpe: Espainia gelditu dagoen bitartean Euskadik aurrera egiten du, beharrian propioak eta kudeaketa modu berezitu- ta ditu eta EAJ da interes horiek ondoen defenda ditzakeena hemen eta Madri- len. Horri “egonkortasunaren” mantra gehitu behar diogu. Krisiak goldatuta- ko lursailen, eskuinak egonkortasuna egoera desiragarri eta positibo gisa aurkezteari ekin dio jo eta su, egonkor- tasun politikoa aurrerakuntza ekono- mikoarekin eta herrien ongizatearekin parekatuta. Urkulluren agintaldia oina- rri horren gainean eraikita dago, ez du apostu edo aurrerapauso garrantzitsu- rik egin, baina egoera egonkorra dela proiektatzen du; egonkorra, hortaz, ona. Jeltzaleen boto aktibaziorako tres- na izango da oreka hori galtzeko beldu- rra, bai Madrilgo egoera ezegonkorrari aurre egiteko orduan, baita bertako gobernu alternatiba bati dagokionez ere (EH Bildu eta Podemosen mamua).



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Pili Zabala euskal gatazkari estuki lotutako pertsona da, elkarbizitzaren sinbolo izan daitekeena, baina ez dena inolaz ere koherentea aipatu marka-eraikuntzarekin. Badirudi bozka-arrantzan EH Bildutik hurbil dagoen espektro politikoa aukeratu dutela abstentziotik edo PSE-EEtik etor daitekeen bozka-oldea baino. Zer pentsatua ematen du horrek

Bestetik, EH Bildu ere antitesiaren bidetik doa *Hemen bai* lelopean. Lau esanda: aldaketa Euskal Herrian posible da, Espainian ez. Mezu horrek, noski, El- karrekin Podemosekiko posizionatzen du koalizio subiranista. Hala ere, ezkerrek arazoak ditu –bai gurean eta bai Euro- pan– aldaketa horrek esan nahi duena komunikatzeko, alegia, klase xumeen esplotazioan eta desberdintasunean oinarritutako egonkortasun faltsu horri gizarte antolaera justuago baten eredia kontrajartzeko. Berri Txarrak musika taldeak dio orekak ez duela balio lurrean zaudenean. Egonkortasunak ere ez.

Alta, aldaketaren poloan Madril- dik datorren alderdi berri bat gehitu behar dugu: Elkarrekin Podemos. Gurean Po- demos hauteskunde-marka da batik bat, ardatz simple eta salgarrietan eraikita- ko marka: berria vs. zaharra, behekoak vs. goikoak, jendea vs. kasta, eta abar. Medioen aupadarekin, marka gisa duen indarra aski frogatu da hemen ere. Hori horrela, bat baino gehiago harritu ginen lehendakariaren hautaketarekin. Pili Zabala euskal gatazkari estuki lotuta- ko pertsona da, elkarbizitzaren sinbolo izan daitekeena, baina ez dena inolaz ere koherentea aipatu marka-eraikuntzare- kin. Badirudi bozka-arrantzan EH Bildu- tik hurbil dagoen espektro politikoa au- keratu dutela abstentziotik edo PSE-EEtik etor daitekeen bozka-oldea baino. Zer pentsatua ematen du horrek. Orain arte entzun ditugun mezuetan indefinizioaren bidea hautatu du Zabalak, baina indefi- nizioak asko definitzen du, eta gehiago gurean.

Arnaldo Otegiaren hautagaitzarekin ger- tatuko denaz gain (tristeza da gero oraindik horrela ibiltzea), hiruko ardatz horretan mugituko da batik bat kanpaina, alderdi konstituzionalisten aurreikuspenik onena EAJren makulu izatea dela baitirudi. Edo- nola ere, ez dute zertan bat etorri kanpai- naren ardatzak eta hauteskunde-emai- tzak. Ala bai? Hori da zalantza. ■

Immigrazioaren erronkak: integratzeetik aniztasunera



Gorka Moreno
Márquez

IKUSPEGI EUSKAL
IMMIGRAZIOAREN
BEHATOKIKO
ZUZENDARIA

Azken 20 urteetan jatorri atzerritarra duten pertsonen hazkundea izan da gure herrietan, nagusiki 90eko hamarkadan bertaratu zirena. Urte horietan erronka nagusiak “harrerera” eta atzerritartasun izaerarekin loturikoak izan dira. Momentu hauetan aldiz, etorkin gutxi ailegatzen ari dira eta gehienek urteak daramatzate, hortaz, kezkak beste maila batean kokatzen dira, integrazioaren arloan hain zuzen ere.

Integratioari buruz hitz egiten badugu, bi dira zutabe nagusiak: enplegua eta hezkuntza. Lehenengoari dagokionez, nabaria da enpleguak berebiziko garrantzia duela integratioan, bertako populazioarentzat zein etorkinentzat. Zentzu horretan, krisiak gogorki jo ditu azkeneko horiek eta asko izan dira enplegua galdu egin dutenak azken urteetan. Jatorri afrikarra dutenen artean nabariago izan da hori.

Beraz, enplegua garrantzitsua da, baina ezin dugu ahaztu horien seme-alabak, batzuk oso gazte etorriak eta beste batzuk hemen jaiotakoak, eta beraz etorkinak ez direnak; horientzat eskolak eta hezkuntza sistemak berebiziko garrantzia dute, horixe baita integratzeorako zein gizarte-mugikortasunerako palanka garrantzitsuena, nagusiki gizartearen tarte ertain zein baxuak kokatzen direnentzat, alegia.

Beste hitzekin esanda, integratioaren partida bi arlo horietan jokatzeko ari da. Etorkinek

enplegua izan behar dute eta euren seme-alabek enplegu hobea bat hezkuntzaren bidez, lehenengoentzat autobusa –horizontala– bermatu eta bigarrenentzat igogailua –bertikala–. Ekua zio hori lortuko bagenu –gutxienez zenbait kasutan– integratioaren erronka horretan aurre-rapauso galantak emango genituzke. Horretan asmatzen ez badugu, aldiz, etorkinen seme-alaben integratioa arriskuan egongo da –ezin da ahaztu hauen espektatibak oso ezberdinak izango direla– eta oso gertu ditugu horrelako eszenatokiek sorrarazi dezaketenez ondorio ez-egokiak –mapan gora begira baino ez dugu egin behar–.

Seme-alabei buruz hitz egitean hirugarren faseari buruz hitz egin behar dugula iruditzen zait, hau da, “aniztasunaren kudeaketaz”. Harreratit integratioa pasa gara eta epe ertainean integratioetik aniztasunerako igaraldia emango da. Hurrengo hamarkadetan etorkin gutxi izango ditugu baina hemen jaiotako askok beste kultura eta erlijio bat izango dute, aniztasuna inoiz baino zabalagoa izango da eta horrek erronka berriak ekarriko ditu. Horiei –denon artean– erantzuteko prest izan beharko dugu. Gaur egun martxan jartzen diren politika publikoek zeresan handia izango dute, bereziki hezkuntza arloan, bai etorkinen integratioa ahalbidezteko zein aniztasunaren kudeaketa egokia eta zentzuzkoa egiteko. ■

Zaindu laguna



Oihana Etxebarrieta

KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

kasturtearekin batera urtea hasten dugun horietakoa bazara, ni bezala martxa hartzen ibiliko zara momentu hauetan. Agendari hautsa kendu, laneko e-mail kontuak eztanda egin ote duen begiratu... Lanera itzultzeko depresioez, uda osteko minez, hitz egiten ibiliko gara baina saiatu beharko dugu honi buelta ematen, ezta? Ezin dugu urtea hasteko modu hau normalizatu. Azken urteotan, feminismoetan zaintza bizitzaren erdigunean kokatu behar dugula aldarrikatzen dugu, baina praktikan zenbateraino zaintzen dugu gure burua? Eta ingurunea?

Urte berrirako helburuen artean gure buruak eta ingurua zaintzea proposatu nahi dizuet. Teo-

riatik praktikara pasatzea. Gure gorputzak eta beharrak entzuten ikasteko garaia da, ezin diogu kanpoko faktoreei gure osasuna, bizitza, egitekoak... antolatzen utzi behar. Konbentzitututa nago horrela hasiz gero, ingurua ere zaintzeko jarrera egokiagoa izango dugula.

Gure osasuna kudeatzen hasten bagara, inposatu nahi dizkiguten erraustegien eta enparauen kontrako borroka indartsuagoa izango da, edo elikadura burujabetzari ekarpen ikaragarria egingo diogu. Beraz, bi aldiz pentsatu gabe, entzun zure gorputza, errespetatu zure erritmoak eta ekin bideari! ■

Benito forever

U da honetan egin dudan gauza atseginetako bat Benito Lertxundiren kontzertu batera joatea izan da. Baziren urte batzuk azkena entzun nionetik, ez hainbeste hala ere, eta uste dut esan daitekeela, okertzeko inolako beldurrik gabe, urteak aurrera ahal bere burua gaintitzen duen artista dela, eta gero eta ikuskizun ederragoak eskaintzen dituela, erloju suitzar baten zehaztasunez funtzionatzen dutenak, daramatzen instrumentista eta ahots laguntzaile aipagarriekin. Gauza bakar bat ez zitzaidan gustatu kontzertuan: ikustea ni nintzela, entzuleen artean, gazteenetakoa. Zaharragoak ez diegu transmititzen jakin gazteagoei, antza, zer artista puska den Benito; edo beharbada belaunaldien arteko talka betikoa baino ez da; edo agian gure ohiko fribolitateaz eta inbidiaz saiatu gara Benitoren dirdira amatatzen. Kontuak kontu, nago jende askok, gehiegik, haren ibilbidearen une batean edo beste batean Lertxundiren jarraitzaile izandakoak, ez dakiela zertan ari den gaur egun, duela hogeit hamar edo hogeita bost urte jada onenak eman zituela uste duelako; eta gaur haren kontzertu bat entzungo balu *flipatu* egingo lukeela.

Gure esnobismoak ez dauka mugarik: gure ohiko bidaia horietako batean, zer



Jon Alonso
IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Bera izango da, hain segur, huskeria hauengatik gutxien kezkatzen denetakoa. Ematen dituen elkarrizketetan aske eta suelto mintzatzen da, zuzentasun politikoaren kezkatik urruti bizi denaren antzera. Nola ez da aske eta lasai mintzatuko, ba, duela berrogei urte baino gehiagotik *Zenbat gera* kantatzen ari den bat

esanik ez estaturik gabeko nazio horietako batera balitz –Bretainia, Eskozia, Irlanda, Flandria–, Orioko kantariaren mailako artista bat entzutea suertatuko balitzaigu, etxera bueltan hari buruzko aipamenak antipodetan ere entzungo liriateke. Bertan edukiz gero, putza. Lertxundi bera izango da, hain segur, huskeria hauengatik gutxien kezkatzen denetakoa. Ematen dituen elkarrizketetan aske eta suelto mintzatzen da, zuzentasun politikoaren kezkatik urruti bizi denaren antzera. Nola ez da aske eta lasai mintzatuko, ba, duela berrogei urte baino gehiagotik *Zenbat gera* kantatzen ari den bat.



Oriokoaren jarraitzaile fidelek ironiaz irakurriko dituzte lerrook, beharbada. Beste musika-molde batzuetara emanago daudenek harriduraz, ausaz. Zorionez ez da falta izan, ezta ere, Benitoz ganora handiagoaz eta luzeago hitz egin duenik ere. Nik aitortu egingo dut entzun nion udako kontzertu horretan, *Zenbat gera* eman zuenean bi ordu eta erdiko emanaldi betearen amaieran, zerbait inarrosi zitzaidala barrutik. ■

EUSKAL OROIGARRIAK
Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14



2003 Donostia · Euskal Herria
☎ 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.800 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.





Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.





Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.




Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.





Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

'Katalina de Erauso' pastoralera

PERTSONAIA GORDEA OHOLTZAN

XVII. mendea. Donostiako domingotarren komentutik ihes egin du nerabeak, bizilekua kartzela zaiolako. Badoa Amerikara, Espainiako erregearen alde borrokatzera, bertako herritarrak zapaltzera. Hogeitaka urte egingo ditu Mundu Berrian ezpata dantzatzen. Ez da, ez, gizona, emakumea baizik. Jada ez da ordea Katalina Erauso, gizon jantzietan Frantzisko Loiola da donostiar abenturazalea. Aurpegi askoko pertsonaia polemikoa, etxean baino kanpoan ezagunagoa, pastoralera ekarri dute. Baionako saioaren ondoren, Donostian eta Donibane Garazin antzeztuko dute.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Maite Berrogainek 2005ean izan zuen Katalina Erausoren berri. Florance Delayren *Catalina: Enquete* liburua irakurri zuen eta Euskal Herrian arrotz eta munduan ospetsua zen emakume borrokalaria aurkitu zuela iruditu zitzaion. Pertsonaia hark osagai asko zituen: armada, eliza, borrokak, emaztea izatea, sexu orientazioaz zalantzak... alegia, pastoralera egiteko gai bikaina iruditu zitzaion.

Hamaika urte ondoren Baionan, ekainaren 5ean, 3.000 lagunek, Lauga kiroldegia leporaino beteta, Katalina Erausoren lehen emanaldiaz gozatu ahal izan zuten. Ikus-entzuleak bero sapa ahaztuta, arizaleen esanei erne ziren. Egokia iruditu zitzaientean txalo jo zuten, barre egin zuten, eta oihuak ere bai gustuko ez zirenak entzun zituztenean. Donostiako Victoria Eugenia antzokian 800 lagunentzako tokia izango da. Baionan baino dezentez ikusle gutxiago eta pastoralera ikusten ohitu gabeko hegoaldeko asko ziurrenik. Guillaume Irigoyenek (arizalea eta hainbat abestiren letragilea)


kezka horixe adierazi digu, ea ikus-entzuleek, pastoralean behar lukeen bezala, parte hartuko duten: "Baionan ikusle zirenen erdiek pastoralen batean hartu dute parte eta beste erdiaren erdiak parte hartu nahi du".

'Katalina de Erauso' jeltaldia

Dirudienez, 1624an Erauso autobiografia idazten hasi zen eta hurrengo urtean argitaratu zen. Dirudienez diogu, bartzuen arabera memoriak baino norbaiten asmatutako kontakizuna baita.

Ondorengo lerroetan Katalina Erausoren abenturazko bizitza kontakutako idatzitako prediku eta jeltaldia narrazio haritzat hartuz.

1592an jaio zen Katalina Erauso Donostian. Migel Erauso aita kapitaina zuen, Filipe III.a Espainiako erregearen zerbitzura zegoen militarra. Ama María Pérez Galarraga. Lau urtetan lau alaba izan zituzten, eta lehenagotik semea zuten. Familia onekoa zen Katalina.





**'KATALINA DE ERAUSO'
PASTORALA**

DONOSTIAN, IRAILAREN 3AN

DONIBANE GARAZIN, IRAILAREN 10EAN

Idazlea: Maite Berrogain.

Errejentak:

Pantxika Urruty eta Maitena Lapeyre.

Katalina Erauso:

Alaia Ithurbide, Laida Abadie,
Miren Elkegaray eta Graxiana Castillon.

PIERRE ALEX BARKOISBIDE

VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



euskara, zure frekuentzian

Oihaneder euskararen etxea

Euskal balezaleen triskantza
Dokumentala
Irailak 15, 19:00
Hitzza adina mintzo
Hizkuntza gutxituen zikloaren
ikasturteko aurkezpena
Carme Junyent
Irailak 21, 12:00. EHU
19:00 Oihaneder
Eskilarapeko soinuak
Jon Gurrutxaga
Irailak 29, 19:30

Zu euskalduna zara, inguruan, ordea, euskara ez dakien edo maila hobetu nahi duen nor-bait izango duzu. Lagundu iezaguzu ikasteko zenbat aukera duen zabalitzen eta animatu ikastera.

Euskara ikastaroak gizarte etxeetan

Matrikula: irailaren 2tik 13ra
Info +: www.vitoria-gasteiz.org/euskara

- **Gurasoentzako ikastaroak**
Gizarte etxeetako gertutasuna aprobetxatuz eta umen eskola ordutegi berberetan, badago euskara ikasteko aukera.
- **55 urtetik gorakoentzako ikastaroak**
Adin batetik aurrera norberak gustukoa duena egiteko aukera handiagoa da eta uheri heldu da: gizarte etxean euskarazko oinarriko maila lortu eta familiarekin eta lagunekin praktikatu!
- **Azterritarrentzako ikastaroak**
Gasteiz gero eta anitzagoa da; ziur asko ezagutuko duzu atzerritik etorritako lagunena bat, esaiozu ongi etorria eman nahi diogula eta euskaraz egin diezaiogun harrera!
- **Merkataritza eta ostalaritza langileentzako ikastaroak**
Arlo horietan oso euskara gutxi edo ezer ez dakiten lagunak ezagun badituzu, eman ikastaro honen berri.

Vitoria-gasteizko euskallegiak eta euskara ikasteko zenitroak

IKA
945 15 43 41 www.ikaeuskaltegiak.eus

AEK
945 25 24 00 www.aek.eus

UDABERRIA
945 22 34 33 www.udaberria.org

HEGOALDE
945 28 41 96 www.hegoaldeuskaltegia.wordpress.com

BAIBY
945 15 71 10 www.baiby.com

MONDRAGON LINGUA
945 15 01 55 www.mondragonlingua.com

Maite duzun hura, euskarazi!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



BOB EDME

Arrakastatsua izan zen Baionako saioa. Antolatzaileek adierazi dutenez ordea, Iparralde barnealdean saio gehiagoren eske dira eta horregatik antolatu dute Donibane Garazin Jai Alain, irailaren 10ean. Astebete lehenago Donostian izango da.

*Aspaldiko urte haietan
Familia sosedunetan
Neskak sartzen ziren
Ttipitik komentuetan*

Lau alabak sartu zituzten domingo-tarren komentuan. Katalinak lau urte baino ez zituen. Aitak ez zuen ezkutatu alabekiko mespretxua:

*Alabak hanitx zaitzo
Familiari kostatzen
Aldiz semeek deioe
Hari ohore ekarten*

Baionako emanaldian entzuleei ez zitzaion batere gustatu aitaren jarrera eta kiroldegian emanaldiko lehen gaitzespen oihuak entzun ziren.

15 urte inguru arte bizi izan zen komentuan. Handik ateratzeko irrikaz zegoen, ordea. Honela hitz egin zion serora nagusiari:

*Hügü dit zure manüa
Joanen nüzü hebedik
Ez dit maite diziplina
Badit nik beste gogorik*

Eta haserrealdi batean iritsi zen alde egiteko ordua. Ihes egin eta bizi berri bat hasi zuen, gizon jantzietan hasi ere:

*Biloak düüt moztüko
(E)ta galtza lüzeak jauntsi
Holaxe niz gizon üdüri
Gaztea lerden bühürri*

*Geroa esküetan dü
Düdarik gabe joanen niz*

*Barnean dütan sükarra
Ez zaüt itzaliko berriz*

Frantzisko Loiola izena hartu eta Filipen IV.a erregearen Gortearen zerbitzura jarri zen. Mundu Berrira, Amerikara, joan nahi zuen. Txile, Bolivia, Panama, Venezuela, Argentina eta Peru zeharkatu zituen, ezpata aldean, Espainiako Inperioko erregearentzat zilarra eta urrea biltzeko ahaleginean.

Osaba Eginorekin egin zuen Amerikarako bidaia:

*Honki jin ene lloba
Noski daküzün bezala
Zilar ürre ebasteko
Denak hortan trebe gira*

*Itsas ontziak dirade
Osoki ürrez betetzen
Hau denen ontsa zaintzea
Zure kargüa da izanen*

Holandarrek espainiarren lapurretara gosea ez zuten maite:

*Ürrez ezin aseak zidee
Deabrüen bizkar hotzak
Aspalditik gure etsaiak
Español ohoin ustelak*

Lapurretak, borrokak, ezpata dantzak, abenturak eta ihesaldiak izan ziren eguneroko ogi Amerikan egin zituen 24 urteetan. Batzuetan ihes egiten zuen, uste baitzuen Frantzisko Loiola emakumea zela ohartzear zirela. Gizon jantzietan emakumeekin zuen jarrerak eman du zeresana Katalina Erausoren

MAITE BERROGAIN ITHURBIDE, PASTORALAREN IDAZLEA

“KATALINA ERE ARDI BELTZA DA”

Zer moduz joan zen Baionako emanaldia?

Enetako izugarri ontsa zeren eta publikoak parte hartu zuen. Zinez, plazer egin dit. Horrek harrapatu nau, ustekabe ona da hala ere.

Donostian publikoa diferentea izango da. Nola erantzungo duela uste duzu?

Nola jakin! Batzuek erraten dute, “Ez da holakorik izanen beste lekuetan”. Bada ez dakit. Pentsatzen dut baietz, zeren eta gorri eta urdinen arteko borroka hor da, emaztetasunaren aldeak... Pentsatzen dut baietz, jendeak pastoralean parte hartuko duela.

Katalina Erausoren historiak pastoralerako osagai guztiak dituela diozu. Erausoren zein aurpegi erakutsi nahi izan duzu?

Lehenik emaztearen gauza. Askatasun gose hori. Emazteak ez dira behar izan komentuan edo ezkondu, bazuten beste asmorik ere, denbora horretako beste emazte batzuek ere. Zeren eta geroztik irakurria dut Kristobal Kolonekin joaten zirenak denak gizonak zirela, eta Pizarro eta Cortesekin emazteak ere joaten ziren konkistatut. Beraz, ez zen hain harrigarria emazteak ikustea, nahiz eta Katalina gizonen emana zen. Hala ere, momentu batzuetan emazte agertu da. Eman dezagun, bere osabaren itsasontzia hartu duelarik bere osabak bazekien emaztea zela.

Aurpegi gehiago ere baditu Erausok.

Borrokazalea. Denbora haietakoa zen konkista. Gaurko eguneko baldin bazen beste gauza batzuk defendatuko zituen behar bada, ez dakit.

Beste aurpegi bat: Emazteen arteko maitasuna. Ezin dugu jakin zuzen ordea, emazteak maite zituenik. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena hortaz.

Pasarte batean Erausok emakume bantenganako desioa adierazten du.

Egia erran, gizona zela eta emazteak maitatzeko prest zela behar zuen erakutsi. Ez nintzen urrunago joaten ahal.



BOB EDME

Antzerkia egin behar zuen gizona zela garbi gera zedin momentu oro.

Nire ustez hori zen, behar zuen komedia bururaino eraman. Pastoralean ez dugu dena eman ahal izan ere. Momentu batez, Andeetako basamortua pasatuta, emazte beltz batek eta bere alabak etxera eraman zuten. Alabarekin ezkontzeko eskatu zion amak. Guk ez dugu agertu, baina testu batean erraten du emaztea hain zela itsusia ez zuela nahi harekin ezkondu. Eta behar bada estakuru bat topatu du, ihes egiteko.

Zaila da jakitea emakumeak desio zituena ala ez.

Hori da. Batzuek ideia hori bereganatu dute, Ipar Amerikako elkarte batzuek, lesbiana mundukoek.

Euskal nortasuna ere bistan da pastoralean.

Izugarrikoa izan da. Hango eliz buruak, epaileak, korrejidoreak, euskaldunak ziren eta elkartasuna adierazten zuten, beti Katalinaren alde. Ez dugu agertu, baina bi aldiz hiltzera kondenatua izan zen eta azken momentuan bazen norbait errateko Katalina bizkaitarra zela eta salbatu behar zela. Beti atera da horrela.

Espainiarra ere bada. Erregearen alde ari da eta konkistatzaile da.

Ez dakit izan zaren Hego Amerikan, baina joaten bazara edozein lekutara denean badituzu euskal izenak, karriketan, etxeak... Gure historia beltza da. Katalina ere ardi beltza da. Konkistan parte hartu dute euskaldunek Espainiaren eta Frantziaren alde. Euskaldunak zepoan harrapatu ginen, bien artean.

Donostian bada brontzezko bustoa, kale bat ere bai bere izenarekin, elkarte baten izena... baina Donostiatik kanpo ez da batere ezaguna. Bere historia, ene ustez, gordea izan da.

Gordea izan dela esango zenuke?

Katalinak ez baititu biltzen euskaldunen baloreak. Erraten ahal dut pastoral hori ez dutela sekula emanen Zuberoan. Pertsonaia tradizioaletik kanpo da. Pentsa ezazu pastoral hau zer den adin batekoentzat, batzuek mutur egiten dute Elizako historia aipatzen baita, haserretu dira.

Aita santuak Erauso birjina den jakin behar dela esaten du eta ikus-entzuleek arbuioz erantzun zuten Baionan.

Bai, bai, izugarri.

Sujeta, Katalina Erauso, gorria da. Ohi-koa urdina, ona, izatea da.

Gorrietan sarrarazi dugu. Zuberoan ez dute sekula egin, eta ez dakit eginen duten. Uste baldin bada beti ona behar duela izan, beti urdina... ene ustez sujeta ez da beti ona. Izan delarik konkistan, Espainiako armadan, guk gorrietan ezarri dugu eta indarra eman diegu indianoei, maputxeei, beren kexua agertzeko. Batzuentzat, sujeta gorri ematea iraultza da, guri iruditzen zaigu ez genuela beste manieraz egiten ahal.

Aldaketa jendeak ondo hartu duela iruditzen al zaizu?

Batzuk ez dira ohartu ere egin. Batzuk ez dakite sujetak urdina behar duela izan, kode horiek ere ez dakit non diren [barrez ari da], ahozko tradizioa baita. Niri batek erran dit hautsi ditugula kodeak, eta erran dut pozik naizela kodea hautsi badugu.

Ez zaizu inor etorri esanez ez zaiola pertsonaia gustatu.

Ez, horrelakorik ez. Gaurkotasuna du historia horrek, eta denak harritu dira, ez zen ezaguna historia. Baditut ilobak Ipar Amerikan, eta unibertsitatean ikasia zuten, badakite nor den moja militarra, hemen batere ez. Iruditzen zait Euskal Herritik kanpo nahiko ezaguna dela.

EUSKAL MEMORIA OSATZEN



Amaia Alvarez Uria*

XVI. mendearen amaieran Donostian jaio zen Katalina Erauso, *La monja Alferéz* edo *The Lieutenant Nun* ezizenez ezaguna. Bere autobiografia idatzi eta 1625ean argitaratu zuen Espainiako erregeari egindako zerbitzuaren truke biziarteko pentsioa eskatzeko eta garai-ko aita santuari gizon jantzita jarraitzeko baimena lortzeko. Biak eskuratu zituen eta testu horri esker heldu zaigu haren berri.

Moja izan behar zuenak soldadu eta merkatari izatea erabaki zuen, emakume izan behar zuenak gizon bizitzea aukeratu zuen, heterosexual behar zuenak lesbianismoari zirikatu bat ireki zion, euskaldun behar zuenak espainiar eta mexikar ere izan zen. Horrela bihurtu zen pertsonaia historiko eta mito literario. Donostian Miramarren edo Tabakaleran aurki dezakegu, baina, zenbateraino ezagutzen du euskal jendeak? Nork eta nola eman digu haren berri?

Bizitza 'liluragarria' izan zuela errepikatzen da nazioartean berari buruz idatzi diren tes-

tuetan. Azken mende aldaketarekin areagotu egin zen bere presentzia argitalpen zientifikoetan eta gerora apaldu den arren urtero idazten dute berari buruz. Testu gehienetan bere genero identitatea eta sexualitatea sailkatu nahian ibiltzen dira eta ohiz kanpoko irudi bat izan zela diote.

Argitalpenen %1 euskaraz idatzitakoak dira. Zergatik idatzi da hain gutxi Erausori buruz bere sorterrian? Zein da euskaraz erai-ki den bere irudia? Lau liburu ditugu: antzezlan bat (*Erauso Kateriñe*, Katalina Eleizegi, 1962); bere autobiografiaren egokitzapen bat (*Katalin Erauso*, Iñaki Azkune, 1976); biografia dibulgatzailea (*Katalina Erauso*, Aitor Zuberogoitia, 1997); eta pastorala (*Katalina de Erauso*, Maite Ithurbide, 2008).

Eleizegiren antzezlanean askatasunaren bila bere ametsa betetzera doan pertsona irudikatzen da. Azkuneraren autobiografiaren egokitzapenean "gizon arima eta indarra" zituela eta "beste emakumeak bezalakoak ez zela" esaten da, "gehiegikeriaz eta zoritxarrez betetako bizitza" izan zuela gaineratuz. Zuberogoiak Erausori buruz diosku "hain emakume indartsua topatzeak" harritu

zuela, "baina gehien hunkitu ninduen bere barne borroka izan zen (...) eta etengabe ihesi egoteak sortzen zion tentsioa". Ithurbidek Erausori buruz hurrangoa dio: "munduan ezaguna den arren hemen ez dutela berari buruz ezer jakin nahi" eta "generoaren afera egungo jendartearen aldarrikapenetako bat d(ela)".

Sherry Velascok (2000) dioen moduan kultura hegemonikoak Katalina Erauso erai-ki, interpretatu eta merkantilizatu egin du, izan ere pertsonaia honek irakurle/ikus-entzuleen beldur eta desirak agerian uzten ditu. Erauso heroi eta arerio gisa irudikatu izan da, nazio, historia eta kultura desberdinen ordezkari; oso aldagarria eta maneiatua izan den pertsonaia da. Garai bakoitzak sexua, generoa eta sexualitatea modu desberdinetan arautzen ditu, baina errealitatea beti da anitza. XXI. mendean hiru eremu hauei malgutasunez eta dinamikoki begiratzeko erronka dugu, normal izateko eguneroko borroka antzuaz jabetu eta denak diferente garelako onartzeko garaia badelako.

*"Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan" tesiaren egilea.

historian. Izan ere, batzuetan badirudi emakumeren batez maitemindu zela. Maite Berrogainen ustez etengabe egin behar zuen antzerkia inor kontura ez zedin emakumea zela. Beste batzuen ustez, Ipar Amerikako lesbiana mugimendu batzuen arabera adibidez, Erausok emakumeak zituen gustuko. Hona Berrogainek gai horri lotuta idatzitako bi ahapaldi:

*Xiletik landa niz Perun
Solarteren zerbütüko
Nola ez aipa alabak
Izigarri düüt gustüko*

*Zoriona düüt topatü
Hanitx jente düüt ikuten
Neskekin denbora pasa
Lana ez düüt nik senditzen*

Maitasun kontuak pixkatxo bat, baina gorrotoak gordinagoak ziren Amerika aldean. Baionako ikus-entzuleak ez ziren lozorroan eta berriz ere gaitzespen oihuak zabaldu ziren Lauga kiroldegian, honela mintzo baitziren Migeltxo Erauso Katalinaren anaia lehendabizi eta Katalina bera ondoren:

*Heben zidee suntsitzeko
Arraza apalagoak
Gük garaitüko düütügü
Nausi dira xuriak
Indiano bürügorri
Espainolek zütüe hilko
Trumilka jiten beitira
Amalürra ebasteko*

24 urteko bizialdiaren ondoren, Euro-para joan zen eta emakume zela aitortu eta gizon itxuran bizitzen jarraitzeko baimena eskatu zion aita santuari. Haren arrapostuak publikoa aztoratu zuen eta Erausoren erantzunak berriz, txaloak harrotu zituen.

*Lehenik jakin behar dit
Beti birjina zirenez
Hebenko bi emagintsek
Erranen düe bai ala ez*

*Gizon bati ez deiozüe
Galtatzen denez birjina
Gizon emazteen arteko
Injüstizia bat haboro da*

Ez zen Europan errenditu. Berriz ere Amerikara alde egin zuen, Mexikora, eta 1650. urtean hil zen moja soldadua. ■

11itzulpen

EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN

INGELESETIK
EUSKARARA
ZUZEN

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:

11itzulpen (34) 699 433 121

KONTXAKO BANDERA

Berdintasunaren bidean, oinarri sendorik gabe

Emakumeek 2008an jokatu zuten lehendabiziko aldiz Kontxako Bandera. Orduko hartan, iraileko bigarren igandearen bezperan jokaturako sailkapen estropada baten bidez erabaki zuten zeintzuk izango ziren lehen urratsa emango zuten lau ontziak: Rias Baixas, Astillero, Getaria-Zumaia eta Hondarribia. Gerora iritsi zen bi igandetan jokatzeko hautua. Aurten ere hala izango da, baina berrikuntza batekin: zortzi traineruk eskuratu dute txartela, lehendabiziko aldiz.



Jon Ander De la Hoz Arregi
@delarregi

Kontxako Banderaren antolatzaile Donostia Kulturak pasa den ekainean egin zuten ofizial ordura arte guztien ahotan zebilena. Emakumezkoen arrauna bul-

tzatze "beste urrats bat eman nahian", iraileko lehen bi igandetan Donostiako badian lehiatzen diren emakumezkoen ontzi kopurua lautik zortzira igotzea

erabaki zuen. Antolatzaileen asmoa aurrez ezaguna izanagatik, zeresana eman zuten erabakiak, baita arraunlarien artean ere. Orioko traineruan egiten du



Orioko arraunlariak. Erdian, Miren Iriondo.

IÑAKI SUAREZ CALLEJA

» **MIREN IRIONDO
ORIOKO ARRAUNLARIA:**
“Gaur-gaurkoz alde handia dago ontzien artean. Zortzi sailkatuta, lehiakortasuna murriztu egiten da”

» **EDURNE MORENO
DONOSTIA ARRAUN
LAGUNAKEKO ARRAUNLARIA:**
“Jakinda ikusle gehien biltzen duen estropada dela Kontxako Bandera, neurriak ikusgarritasuna eman diezaioke emakumezkoen arraunari. Batez ere, Euskotren Ligan jokatzeko duten lau ontzietan gain gehiago ere bagaudela jakiteko”

» **IRATI IÑARRA
SAN JUANGO ARRAUNLARIA:**
“Oraindik gauza asko dago finkatzeko emakumeen arraunean. Aldaketa asko daude egiteko, eta urteen poderioz egin behar da hori, soseguz eztabaidatuta. Gauzak kolpetik erabakitzeak luzera ez du ezertarako balio”



IÑAKI SUAREZ CALLEJA

Arraun Lagunakentzako ontziak (irudian) bi urte baino ez daramatza itsasoan. Morenoren hitzetan, Kontxako Banderari begira “Donostiako emakumezkoen arraunari bultzada eman nahi diogu, ahal bada, ohorezko txandan sartuta”.

arraun Miren Iriondok (Deba, 1994), eta bere esanetan, azkarregi hartu da erabakia: “Gaur-gaurkoz alde handia dago ontzien artean. Zortzi sailkatuta, lehiakortasuna murriztu egiten da. San Juan eta Hibaika, esaterako, sailkapen estropadan erlaxatu daitezke, badakitelako oso gaizki eginda ere atzetik bi utziko dituztela”.

Donostia Arraun Lagunak elkarteko Edurne Morenok (Donostia, 1991) ere badaki aldea dagoela ontzien mailari dagokionez, baina positibotzat du erabakia: “Jakinda ikusle gehien biltzen dituen estropada dela Kontxako Bandera, iruditzen zait neurriak ikusgarritasuna eman diezaiokeela emakumezkoen arraunari. Batez ere, Euskotren Ligan jokatzeko duten lau ontzietan gain gehiago ere bagaudela jakiteko”. Gizonezkoetan Kaiarriba-Donostiarra Arraun Elkarteari gertatzen den bezala, aurrez sailkatuta daude Moreno eta bere toskideak, alegia Donostiako *Lugañene* trainerua. Datozen edizioetan traineru horretan gain hiriko beste ontzirik balego, bien arteko sailkapen estropada jokatu litzateke, gizonezkoetan Ur Kirolakek eta Arraun Lagunakentzako urte bezala.

Iriondorekin bat dator Irati Iñarra (Pasai Donibane, 1993): “Onuragarria izan daiteke batzuentzat, baina besteei kaltea soilik egingo diezaike, oso atzera

geratzen den traineruko kideak arraunarekiko ilusioa galdu baitezake. Hori arriskutsua da”. Badaki zertaz ari den Iñarra: azken bi urteetan Kontxako Bandera irabazi du *Batelerak* ontzian arraun eginda, baina arraunean oro har “garaipenak baino, porrot gehiago” jasanez dituela zehaztu du. Izan ere, lehen bost edizioetan Galiziako ontziak nagusitu ziren Donostiako badian. Zumaiak irabazi zuen 2013an, eta azken bi urteetan, Iñarra kide duen Pasai Donibaneko traineruak. Aurten hirugarrena irabazi nahi dute.

Traineru bakoitzak bere helburuak

Traineru kopurua gehitu arren, Iriondok eta Morenok ez dute uste sailkapenaren buruan aldaketarik izango denik. “Azken bi urteetako txapelduna da San Juan, eta Euskotren Liga irabazi dute. Faborito nagusiak dira”. Alabaina, ez dago erlaxatzeko aukera askorik, “udan zehar ikusi den bezala Hibaika gainera joaten baitzaie oharterako”, dio Iriondok. Nabarmendu du eurak ere aurrean ibiltzeko asmotan direla, baina ez du uste bi ontzien parera iristeko gai izango direnik: “Urrun ikusten dugu bandera, egia esan”.

Iriondok azaldu duenez, azken asteetan arraunketa gehiago bateratzen saiatu dira, eta trainerua aldatu dute: Iñaki Lasa ingeniariak emakumezkoen ezau-



San Juan izan zen iazko Kontxako Banderako irabazlea. Harrera beroa egin zieten arrosa kolorez jantzitako zaleek.

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

garriak aintzat hartuta eraikitako ontzia erabili dute orain artean, proba gisa. Azken asteetan, baina, alboratu egin dute: "Santi Zabaleta entrenatzailea ohartu zen aurretik elkartean genuen Txiki ontziarekin diferentzia askorik ez duela, eta hura hartu dugu berriz". Orain, Hibaikak hartu du *Branka* probatzeko ardura, eta badirudi ez doakiola batere gaizki: hura erabilitako lehen estropadan, Colindresen (Kantabria, Espainia), bigarrenari 15 segundo sartuta lortu zuen bandera irabaztea.

Morenok aitortu du Euskotren Ligan aritu diren ontziekin alderatuta (San Juan, Hibaika, Orío eta Cabo) maila baxuagoa dutela, eta bestelako asmoak dituzte Kontxako Banderan: "Donostiako emakumezkoen arraunari bultzada eman nahi diogu, ahal bada, ohorezko txandan sartuta". Zehaztu du urtez urte gora joatea dela xedea. Izan ere, Arraun Lagunakentzako ontziak bi urte baino ez daramatza itsasoan.

Aurten Gipuzkoako Ligan soilik aritu dira –ez zuten lortu Euskotren Ligarako sailkatzea–, baina nabaritu dute iaztik honako hobekuntza. Ez alferrik, uztailaren 16an lortu baitzuten historiako lehen bandera Donostiako emakumez-

koen traineruarentzat, Orion jokaturako erlojupekoan: "Euskotren Ligako ontzirik ez egonda zabaldu egiten zaizkigu aukerak, eta Getaria-Zarautz eta gure artean lehia polita sortzen da. Guk irabazi genuen Orion, eta haiek Zumaiari".

Ontzi askotako aldea daramate gizonetzkoek

Maila bakoitzean lehiatuko den traine-ru kopurua berdindu bada ere, sarien bidez banatzen den diru kantitateak ezberdina izaten jarraituko du. Emakumezkoetan, irabazleak 12.000 euro jasoko ditu, eta kopurua murriztuz joango da sailkapenaren arabera; zortzigarren postuan geratzen denak 3.000 jasoko ditu. Zerikusirik ez gizonetzkoek jasotzen dutenarekin: 24.000tik 5.000 eurora bitarteko sariak banatuko dituzte. Horri gehitu behar zaio ADEGI Gipuzkoako enpresarien elkarrekin aurtentzen emango duen sari berezia: bi jardunaldiak kontuan hartuta denbora onena lortzen duen traineru gipuzkoarrari 5.000 euro emango dizkio, bai emakumeetan, bai gizonetzkoetan.

Iñarraren aburuz "oraindik gauza asko dago finkatzeko" emakumeen arraunean, eta hau horren adibide bat

gehiago da: "Unean uneko erabakiekin zaila da behar besteko indarra lortzea. Pentsa, lehen 8.000 euro jasotzen zituen irabazleak, eta 12.000ra igo zuten iaz. Ongi etorria da, baina ez dakit zein irizpide erabiltzen duten aldaketa horiek egiteko". San Juango arraunlariaren esanetan, eurek 2.778 metroko estropada jokatzeko –gizonetzkoek bikoitza egiten dute– zerikusia du sarien tamainarekin: "Aztartu beharko da hori ere. Aldaketa asko daude egiteko, eta urteen poderioz egin behar da hori, soseguz eztabaidatuta. Gauzak kolpetik erabakitzeak luzera ez du ezertarako balio".

Morenok ere aldaketaren beharra ikusten du, baita sariei dagokienez ere: "Guri ematen diguten argudioa da lehiatzeko aukera ematen digutela bidea erraztuz, baina diruarena beste kontu bat dela". *Lugañe*ko tostakidearen ustetan egotera "lotsagarria da, baina gizartea oker dagoen bitartean ez pentsa arrauna aldatuko denik. Batzuek ordaindu egin behar izaten dugu arraun egiteko, beste batzuek diru kopuru handiak jasotzen dituzten bitartean". Bien arteko tartea gero eta murriztagoa den arren, gizonetzkoen traineruek ontzi askotako aldea daramate oraindik. ■

HARRAPAZKA EGUNA: AUZOLANA ETA LEHIA NAHASTEN DIRENEAN

Igoin mendiaren magalean bildu dira denak urtero bezala. Ilun-bistan atera dira, bakoitza bere baserritik. Oinez egin dute bertarako bidea, batzuentzat ordutako bide luzea. Eguna argitzen ari du eta tentsioa sumatzen da. Han daude denak orain. Zain. Igitaia eskuan hartuta, maldan gora dagoen landazainari begira. Adi.

Bat-batean, landazainak besoa altxa eta argi bat atera da zerurantz. Etxafuegoa iraileko zero gorrituan lehertu da. Puskatu da isiltasuna. Igoin-sasiko hariztiaren azpian igitai hotsa baino ez da entzuten. Zeinek iñistor edo garo gehiago ebakiko ariko dira ilundu arte.

Hasi da aurtengo Harrapazka Eguna!



Iñaki Sanz-Azkue (Aranzadi Elkarte)

Ereñotzuko Auzo Udalak (Hernani) *bizimodua auzolanean* proiektua jarri zuen martxan 2015ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailaren laguntzarekin. Honen barruan bildu nahi izan du Harrapazka Egunari loturiko ezagutza eta historia. Harrapazka Eguna iñistorra ebakitzeko egun berezia zen eta ohiturak orain dela 75 urte arte iraun zuen –1941ean egin zen Hernanin azken aldiz–. Ereñotzuar askok entzuna duten arren, oso gutxi daki zer zen zehazki. Aranzadi Zientzia Elkarteak, Dobera Euskara Elkartearen laguntzarekin, egun berezi hau bizi izan zuten azken testiguak aurkitu, elkarrizketatu eta grabatzeko ahalegina egin du. Horri guztiari, artxiboko dokumentu zahar eta datu bibliografikoak gehitu dizkio.

Duela gutxi utzi gaituen 98 urteko Hipolito Arregui eta 92 eta 90 urteko Antonio eta Pedro Santa Kruz anaiak izan dira gure testiguak. Hernaniko Harrapazka Egunaren azken testiguak.

Baina zer zen Harrapazka Eguna?

Harrapazka Eguna iñistorra ebakitzeko garaia irekiera ematen zion eguna zen. Hau ospatu arte debekatua zegoen iñistorra moztea, multa jasotzeko arriskuarekin gainera. Egun berezia zen zinez, zituen berezitasunengatik, eta baita zuen garrantziagatik ere.

Iraileko amabirjin (irailak 8) egunaren inguruan ospatzen zen urtero, iñistorra gorritzen hasten zen garaian. Udalak bandoa ateratzen zuen herritarrei

noiz eta non izango zen jakinarazteko eta bertara nahi zutenek joateko eskubidea zuten, herri-lurretan egiten baitzen. Askorentzat iñistorra doan ebakitzeko eguna zen; Udalarentzat, aldiz, iñistorra moztea kudeatzeko edo erregulatzeko modua zen. Izan ere, Harrapazka Eguna bere legeak zituen eta horiek ez betetzeak zigorra zekarren.

Familia bakoitzetik bi-lau –urtearen arabera– pertsonak baino ezin zuten parte hartu eta bertara igitaia baino ezin zitekeen eraman iñistorra mozteko.

Egunean bertan, landazainak agindutakoan hasten ziren denak ebakitzten. Bakoitzak bere eremua markatzen zuen aurrena bertako iñistorra moztuaz. Lehia estua izaten zen: aldame-



Iñistor artean, Urnietan. Argazkia: Jose Luis Unanue. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak utzia.

nean zeudenek baino azkarrago moztea garrantzitsua zen, norberaren eremua handiagoa izateko. Zenbat eta azkarrago moztu, orduan eta handiagoa partzela. Hori zen harrapazka, hitzak berak esaten duen moduan, ahalik eta gehien, ahalik eta azkarren ebakitzea, etxera iñistor gehiago eramateko. Behin buelta guztia “markatuta”, barrukoa mozten hasten ziren.

“Aurreneko egunean igitaiaarekin moztea baino ez zen libre izaten” esan digu Hipolitok. Iluntzen zuenean ematen zitzaion amaiera Harrapazka Egunari. Hurrengo egunean, leku eta ordu berean, iñistorra mozten jarraitu zezaketen, “baina segarekin moztea baimentzen zen”. Horrela, iñistor guztia ebaki arte,

edo nahikoa hartu arte irauten zuen kontuak.

Bitxikeriz beteriko egun garrantzitsua

Gure testiguen kontaketen digute nola urrutieneko baserrietakoek orduak egiten zituzten goizean Harrapazka Eguna egiten zen eremura iristeko. Amantarrak eramaten omen zituzten jantzita. Zakuetatik ateratako tela zatiekin –eta beranduago paper-fabriketako mantekin– eginiko galtzetin edo polaina modukoak, abarken gainean jartzen zituztenak. Eta zakutoan eramaten omen zuten jan beharreko guztia, jateko denborarik bazuten, behintzat... garrafoiak ere eramaten omen zituzten sagardo

berriarekin, izan ere, zaharrenen esanetan, “sagardo berriak harrapazka egunerako egina behar zuen”. Beste batzuek, ordea, “herriaren kontura joaten ziren bazkaltzera” esan digu Antoniok. Udaleko ordezkariak eta landazainak ere bertan egoten ziren, baita Aldundiko ordezkariaren bat ere, “baina haiek jatetxetik ekarritako janaria jaten zuten, e! eta iñistorra ebaki gabe! Gure kontura!”.

Iluntzean ere izaten omen ziren komeriak. Jendeak ilun-bistan ebakitzen jarraitzen omen zuen eta landazaina zelatan ibiltzen omen zen, arropak aldatu eta txapela alderantziz jantzita ea zein harrapatuko. “Ilargitan lapurtu ederki egiten da” esan digu barrez Pedrok.

BANDO, BANDO!

Bilatu ditugun Hernaniko Harrapazka Egunaren aurreneko aipamenak 1826koak dira, nahiz eta XVII. mendean dagoeneko Hernaniko dokumentuetan iñistor mozketei buruzko aipuak azaltzen diren. Ez dakigu ordea, garai haietan mozketa hauek harrapazka egiten ziren. Harrapazka Eguna, hasieran Hernaniko herri-lur eta zilegimendietan egiten zen. XIX. mende erditik aurrera, herri-lurrak eta zilegimendiak lote eta partzeletan banatu ziren, eta horietako asko iñistor-toki bihurtu ziren. Ordutik aurrera, Igoien mendiaren magalean, Igoien-sasi izeneko eremuan egin zen Harrapazka Eguna, 1920 eta 1941 artean. Urte horietan, legeak zertxobait aldatu baziren ere, helburuek lehengoan jarraitu zuten.

Harrapazka Eguna egiten zen, baita ere, Andoainen, Urnietan, Errenterian eta Oiartzunen. Herri bakoitzak bere ezaugarriak bazituen ere, oinarritzko legeak antzekoak ziren.

Herritarrek jarritako izena

1826ko dokumentuan, *“corte de alhechos”* aipatzen da Harrapazka Egunari buruz aritzeko. 1920an, ordea, Hernaniko alkate Gregorio Mendiak sinatutako bandoan *“corte de helechos conocido vulgarmente por arrapatzka”* idatzi zuen. Herritarrek urtetan erabilitako izena, beraz, izen ofizial bihurtu zen, eta Udalean bertan ere erabiltzen hasi ziren. 5 urte geroago, 1925ean, agertzen da harrapazkari buruz ateratako aurreneko euskarazko bandoa. Eskuz idatzitakoa, gainontzekoak ez bezala. Zera dio: *“Alcate jaunaren partetic aicea ematen det, illonen 9 izango dala iñostorren arrapazca, ezdala izango astia coetiatic bota arte lengo urtiantan becela”*.

1942an, Harrapazka Eguna ospatzeko egun bakarra falta zela, Ricardo Rezola alkateak deia egin zuen, kasu honetan ere euskaraz, hau ez zela egingo adieraziz: *“Alcate jaunak adierasten dizute. Arrapatzka debekatuba gelditzendala Usoko mendian, aldaketa egindako lekubetan”*. Udalak ateratako bando honek eman zion bukaera Hernaniko Harrapazka Egunari.



Hernaniko Agerre baserrikoak meta eginean, 1965ean.
Argakia: Felix Unzueta.
Kepa Urreagak utzia.

IÑISTORRA: URREA BAINO ESTIMATUAGOA

Aspaldi bukatu ziren iñistorra ebakitzeko egunak Ereñotzun. Iñistorra (*Pteridium aquilinum*), iratzea edo garoa izenekin ere ezagutzen dena, ezinbesteko lehengaia zen ganadua zuen baserritarrarentzat. Iñistorrik gabe ezin bizi, eta irailaren erdi aldera hasten ziren moztzen, hosto-gorritzen hasten zuenean.

Ukuiluan zabaltzen zuten iñistorra. Ganaduaren azpitarako (oheak egiteko) gauza hoberik ez omen zen. Azpitarako erabilitakoarekin egiten zen simaurra ere, baratzerako ongarria.

Pedro Santa Kruzek urtetan ebaki izan du iñistorra baserrirako. Honen garrantziaz galdetu diogunean ez du dudarik egin: *“Urrea baino estimatuagoa huen! Orain txerria erretzeko adina ez zen bilduko!”*, dio iñistor-tokiak desagertzen ari direla adieraziz.

Gutxi omen dira dagoeneko iñistorra moztera iñistor-tokietara joaten direnak. Iñistor-metak, bizitzeko modu baten azken arrastoak bihurtu dira beraz.



Araldia, Urnietan. Argazkiaren jabea: Pili Lasa. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak utzia.

Istiluak, lehia... eta auzolana?

Istilurik ere ez zen falta, itxuraz: “Hi gure partzelara sartu haiz!”, “Guk ebakitako inistorra jaso duk!”... izan ere, harripazka lehia zen. Eta horrek liskarrak eta komeriak ekartzen zituen. Udalak behin baino gehiagotan atera behar izan zituen bandoak legeak gogoraraziz. Baina inistorra behar beharrezko lehengaia zen, eta horrek auzolanean lan egitera ere behartzen zituen bizilagunak.

Inistorra mozteko garaiaren aurretik “aaldiya” (araldia) izeneko egiten zuten –zenbait herritan “malobra” ere deitzen zioten–. Araldia auzolanari esaten zitzaion; inistor tokietara zihoazen gurdi bideak konpontzeko eta txukuntzeko egiten zen auzolanari. Bertara familia bakoitzak ordezkari bat eramateko betebeharra zuen eta ezin bazuen bidali, ordezkoa aurkitzea euren lana zen. Udalak bando bidez jartzen zuen eguna eta bideak konpontzeko taldeak egiten zituen. Inguruan

aurkitzen zituzten harri eta materialak erabiliz konpontzen zituzten gurdi-bideak. Gure testiguen, ordea, beste mota bateko kontuak ere gogoratzen dituzte. Izan ere, Udalak ardoa jartzen omen zuen doan eta ba omen zen jenderik, bertsoak botatzen bukatzen zuenik egun hartan...

Aaldiya eta Harripazka Egunaren ondoren, ebaki eta mendian lehortzen utzitako inistorraren bila gurdiekin joateko garaia iristen zen. Askok gune jakin batean egiten zuten zita gurdiekin, eta elkarrekin joaten ziren guztiak bata bestearen atzetik inistorraren bila, “trena bezala!”, “gurdi soinu ederrak ateratzen” gure testiguen arabera. Familiakoen artean jende nahikoa ez, eta baserrien arteko auzolana ere izaten zen askotan, bai inistorra jasotzeko, bai metak egiteko ere.

Esker onak

Inistorraren inguruan egin ditugun elkarriketa guztietan zuen laguntza,

denbora eta informazioa eman diguzuen guztiei. Idurre Lekuona, Eñaut Agirre eta Xabier Iriarteri, Harripazka Egunari buruzko bilketan egindako lanagatik.

Irailaren 24an festa

Ereñotzuko Auzo Udalak antolatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, bideo emanaldia eta ibilbide gidatua eskainiko dute Ereñotzun, irailaren 24an, 9:30ean Auzo Etxean bilduta.

30 minutuko bideoaren ondoren, Harripazka Eguna egiten zen mendietako pistetatik barrena (Akolatik Igoi-sasira) ibilbidea egingo dute. Antolatzaileek “erraz egitekoa” dela adierazi dute (3,5 kilometro eta 80 metroko desnibeletara) eta 13:30etarako bukatuko dela.

Artikulu hau sinatzen duen Iñaki Sanz-Azkue arituko da bidean Harripazka Egunaren inguruko azalpenak ematen. ■

Othoi, çato etchera

HELMUGARA IRITSI EZ ZIREN 50 GUTUNAK

1757ko apirilaren 4a, Baionatik Kanadako Louisbourg-era abiatu da Le Dauphin itsasontzia. Frantzia eta Ingalaterraren arteko gerra eta, laugarren egunean, itsaso handian, lau ontzi ingelesen mende da Le Dauphin. Portsmouthera eraman dute ontzia, eskifaiarekin batera. Ondasun guztiak kendu dizkiete. Tartean, euskaraz idatziriko 50 eskutitz: *Lapurdum* agerkarian ikusi dute argia.



Miel A. Elustondo

2001ean Londresen zen Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Xabier Lamikiz historialaria doktore tesia helburu. Sasoi bateko merkatarien arteko harremana zuen azterkizun. Horretan zen ingeles itsasontziek XVIII. mendean harrapatutako itsasontzi etsaietako agiriak irakurtzen ari zenean Ingalaterrako hiriburuko artxibategi nazionalan. Gerren arabera antolatutik ageri ziren agiriok, itsasontziaren izenaren eta kapitainaren deituraren arabera nola edo hala katalogaturik, eta hainbat kutxatan gordetarik.


Gutuneria handia zen han, eta haietatik tesi lanerako interesgarrien zitzaizkionak hautatu eta katalogatu zituen Lamikizek orduan. 2003an, lantegi horretan ari zela, euskaraz eskribituriko eskutitz sorta handia aurkitu zuen. "Bitxia iruditzen zitzaizkidan hainbeste eskutitz aurkitzea. Hala ere, hura ez zen nire tesiaren gaia eta, beraz, zegokien artxibategiaren erreferentzia gorde eta neure lanari jarraiki nintzaion. 2006an, tesia bukatu eta ondoko urtean, Iker zentroko Rikardo Etxepare zuzendariari aurkikuntzaren berri eman nion. Hark balio sekulakoa eman zion gutuneria hari. "Guk ez genekien horrelakorik bazenik ere!", esan zidan". Handik laster ziren euskarazko gutunon kopiak Beñat Oihartzabal, Xarles Bide-

gain eta Rikardo Etxeparearen begien aurrean. Beste aldi bat hasi zen orduan: Lamikizek eskutitzei egindako argazkiak hartu eta lanari lotu zitzaizkion Xarles Bidegain eta Manuel Padilla hizkuntzalariak, transkribapenak eginez eta haiek interpretatuz. Lamikizek, berriz, testuinguru historikoaz idatzi zuen.

Le Dauphin itsasontziaren garaia

Ingelesek 28.000 itsasontzi ere arpilatu zituzten XVIII. mendean, 50 urtez gerra egin baitzuten Ingalaterrak eta Frantziak. Manupean zuten itsasontzia ingeles esku erori baino lehen, frantziar ontzietako kapitainek uretara botatzen zituzten –kasu gehienetan– agiri idatzitziak, etsaien eskuetan eror ez zitezen. Ondorioz, 28.000 itsasontzi harrapatuagatik ere, zenbait ontzi zeraman dokumentazioa baino ez zen salbatu. Horixe da Le Dauphin ontzi frantziarraren kasua, ingeles erasoari kontra egin gabe bere burua entregatu zuena. Horrela gorde dira gaurdaino, nahiz eta artxibategiko kutxa ahantzietan izan, euskaraz idatziriko 50 eskutitz, zinez gertakari bakana, gisako agiri pilarik batera agertzea ez baita batere ohikoa.

Lamikizek gutunak erakusten duten munduari begiratu dio eta idazkiotan



LAMIKIZEK UTZIA

Manu Padilla hizkuntzalariaren gogoeta: "Nazioartean, gutun egileak gizonezkoak dira neurri handienean. Le Dauphinek zeramatzen euskarazko eskutitzen egileak emakumeak dira, gehienbat. XVIII. mendean populazioaren zatirik handiena euskaldun elebakarra zen, eta alfabetatzen zenean, euskaraz alfabetatu ziren. Gure ustez, maila batetik gorako jendeari dagokionean aldiz, frantsesez alfabetatu ziren; haiek gizonezkoak ohi dira gehienbat. Le Dauphineko gutun-idazleak emakumeak izaki, haien ikuspedia ageri da idazkiotan. Esaterako, bildumako bi gutun luzeenak oso aipagarriak iruditzen zaizkigu [horietako bat goiko argazkian]. Bata amak alabari idatzia, noka. Neskato joana du alaba, inondik ere. Bestea zapatagile baten emaztearena da, biziki ongi idatzia, ia-ia lapurtera klasikoan; emakume irakurria da, zalantza bihirik gabe".

orduko gizartearen argazkia ageri dela dio: "Industriaurreko egoera penagarrian bizi ziren, miseria gorrian. Klase ertainik ez zegoen, artean: gutxi batzuk ondo edo oso ondo bizi ziren, eta aldiz, gehienak larri, jateko lain ez zutela eta zorretan sartuak. Argi eta garbi ageri da argazki hori gutunotan. Egia da eskutitzok idatzi dituen alfabetatua dela, edo erdizka alfabetatua, baina kontatzen dutena lastimagarria da: senideei itzultzeko erreguka ari dira, hemen behar dituztela,



Manuel Padilla eta Xabier Lamikiz, gutun sorta argitaratuak eskuan dituztela.

ZALDI ERO

ahal duten moduan bizi direla... 'Otoi, zato etxera' da eskutizetan behin eta berri-errepikatzen den leloa".

Inondik ere, Le Dauphineko marinela- gainerako itsasontzietako itsasturien gisa-, arrantzale ziren bake garaia izan zen gerra aurreko aldia. Gerra datorrela, ordea, inork ez du arrantzan nahi. "Gerra hasten delarik, arrantzaleak prest daude kortsoan parte hartzeko, beren bizia arriskatzeko, gehiago irabazten dutelako, bistan da".

Euskararen lekukotasuna

Esan bezala, Iker zentroko kide diren Bidegainek eta Padillak egin zituzten transkripzioak eta burutu zuten hizkuntzaren gaineko azterketa. Alabaina, urteak igaro dira lanak argia ikusi dueneko. Inork ez du Le Dauphineko eskutitzok editatzeko lana berariazko proiektutzat hartu. Eta, bestalde, hor da betiko galdera: ba ote da eskutitz gehiago? Padillak berak esan digu: "Galdera egin beharra zegoen: aurkikuntza berezia da, ala aurkikuntza handiago baten hasiera? Ikerrekoek zenbait bidaia egin behar izan genituen Londresera, kuxtatan gordetako dokumentuak aztertzeraz. Ordurako, Espainiako eta Frantziako itsasontzietan bilduak ziren hainbat idazki baliatuak zituen Lamikizek, baina Frantziako itsasontziak milaka ziren, eta haietan gorderik zetzan dokumentazioa landu beharrean ginen. Sekulako lana berriz ere! Kutzak eta kutzak aztertu genituen Londreseko

artxibategian, eta eskutitz gehiago aurkitu genituen han eta hemen -nahiz eta eskutitzok askoz gehiago ez izan-, gehienak XVIII. mende amaierakoak". Orduan bai, itzulinguru gabe esan ahal izan zuten kasu guztiz berezia dela Le Dauphine-na: itsasontzia komunitate euskalduna bizi zen lekura zihoan, Kanadako Louisbourg-era. Honenbestez, bi komunitateren arteko harremanaren erakusgarri ziren eskutitzak.

ELEBAKAR ALFABETATUAK

Lapurteraz idatziak dira denak. Haietan erakusten denez, duela kasik hiru mende, Ipar Euskal Herriko herrietan, Hegokoetan ez bezala, herri xehea euskaraz idazteko gai zen. Oso modu naturalean idazten zuen, herritar gehienak elebakar izanagatik ere: elebakar alfabetatuak ziren, euskaraz besterik ez zekiten. Are gehiago, populazioaren zatirik handiena euskaldun elebakar horiek, zati batean euskaraz alfabetatuak, osatzen zuten Lapurdi. Bestela zen Hegoaldean: irakurtzen edo idazten zutenek gaztelaniaz egiten zuten; gaztelaniaz baino lehen, berriaz, latinez.

Ozeanoaren alde bateko senideek beste aldera joanei bidaltzen zizkieten gauzez gainera, gutuneria zegoen: sinatuak dira, 1757ko otsailetik apirilera bitartean Lapurdiko hamar bat herri-tatik bidalitakoak. Jendeak ontziren bat itsasoratuko zelako berria jaso eta gutunak bidaltzeko baliatu ohi zuen. "Batak besteari idaztea oso gauza ohikoa zen. 'Aurten bost aldiz idatzi dizugu eta zure aldetik ez dugu erantzunik izan'. Gisako esanak askotan irakurri ditugu. Jendeak gutunak idazten zituen, hemendik hara nahiz handik hona. Gerra testuinguru horretan segur da hainbat eta hainbat eskutitz galduko zirela, ontzietan batera. Esaterako, Le Dauphinen badira 50 gutun euskaraz, eta 108 frantsesez, Lapurdin idatziak denak ere. Hori da: eskutitz guziak ez dira euskaraz idatziak, baina zati polit bat, bai".

Lapurdiko itsas hegiko herrietako jendeak idatziak dira gutunak, gehienbat, baina badira barnealdeko zenbat lekutan idatziak izan direla erakusten dutenak ere. Batean da Hendaia, bestean Azkaine, barnago Sara.

Padilla hizkuntzalariaren arabera, aipagarriena da gutunok jende xumeak idatziak izatea. "Ez dira handiki ez elizgizon, herri xehe eta marinelen familia dira, kasik beti. Haien mintzamoldea euskara da, oso euskara naturala. Bistan denez, idatzizko generoa da gutuna, formula jakinak ditu, baina, gainerakoan, irakurtzen den hizkuntza oso da naturala". Idazkiok, bestalde, bestelako ekarpen ederrik ere egiten digute, Padillak jakinarazi digunez, eta hizkuntzen historiari lotua da. "Mendebaldeko hizkuntzen historia egin izan denean, testu inprimatuak gertatu dira iturri lehen eta nagusi, hau da, literatur kanon batean ezarriak dira testuok. Nork idazten zituen? Bada, beti edo gehienez handikiek, eskola handiko jendeak, elizakoek. Azkeneko urteotan, berriz, beste lerro bat ireki da, nazioartean *Hizkuntz historia behetik* izendatu dutena, *language history from below*. Lerro horretan, mota honetako lekukotasunak lehenesten dira, batez ere erdizka alfabetaturik zegoen jendearenak. Arrazoiak ere badira horretarako: izan ere, haien jarioa hizkuntza mintzatutik hurbilago dago eta errazago islatzen du egiazko ahoskera. Bada ekuazio halako bat: zenbat eta alfabetatuago izan, orduan eta urrunago idazten da mintzatutik, eta alderantzira". ■

EZ HITZ EGIN KLIMA ALDAKETAZ, JUSTIZIA KLIMATIKOAZ BAIZIK

Klima aldaketaren desafioa irabazteko beharrezkoa eta premiazkoa den paradigma aldaketaz aritu ziren Munduko Foro Sozialean antolatu *Sistema aldatu, ez klima!* hitzaldi arrakastatsuan. Borroka hori irabazteko segurtasuna inork adierazi ez bazuen ere, irabaztekotan herri mobilizazioari esker irabaziko dela adierazi zuten hizlari guztiek.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

Demokrazia energetikoa izango da klima aldaketaren desafioa irabazteko baldintza. Paradigma aldaketa hori gabe ez da lortuko. Premiazkoa den aldaketa hori agenda politikoan ez izanki, haren gauzapez gogoetatzen aritu ziren hainbat militante ekologista ezagun, Munduko Foro Sozialaren barruan antolatu *Sistema aldatu, ez klima!* hitzaldian, ehunka entzuleren aitzinean.

Demokrazia energetikoa xeheki azaldu zuen Maite Llanos demokrazia energetikoaren alde dabilen Trade Unions for Energy Democracy sindikatuko kide argentinarrak. Hasteko, krisi klimatikoak krisi sistemiko bat dela ohartarazirik, argi utzi zuen eredia iraultzen ez deino, ez dela benetako aterabiderik marraztuko. "Klima aldaketaz hitz egitea peto bat da, bide orri 'onargarri' bat garatuko dutelako enpresa kapitalistek. Krisi sistemikoaz hitz egin behar dugu, sistema aldatzeko eta trantsizio justua

herritarrentzat eta herritarrek bideraturik izateko".

Energia politika marrazteko, erabakitze eta kudeatzeko eskumena herriek eta herritarrek ukanen dutenean hitz egingo da benetako demokrazia energetikoa, Llanosen ustez. Hain zuzen, enpresa handiek klima aldaketaren aurka ekin nahi badute ere, ekoizpen eredia aldatzeko nahikeriarik ez dutelako. Iaz Parisen eginiko klima aldaketari buruzko COP21 gailurrean adosturiko testua kritikatu zuen: "Azkenean kutsatzeko eskubidea ematen duen AEB eta Txinaren arteko akordio bat besterik ez da".

Aldaketa itzaroteko denborarik ez dela errepikatu zuten behin baino gehiagotan. Bihar berantegi izanen delako. "Urrunegi joan gara, aitzina urrats bakar batzuk eginez gero leize-zulora eroriko gara. Amildegia gainetik jausi egiteko garaia da", abisua luzatu zuen Naomi Klein kazetari eta militante altermundialistak.

Merkataritza askea jomugan

Giltzetariko bat izan zen merkataritza askeko akordioen (CETA, TTIP, TPP...) aurkako borroka. Hain zuzen, testuingurua ikusirik, ez delako simple Kleinek aipatu jauzia egitea: klima aldaketaren aurkako mobilizazioa jendetsua izanik ere, parean eskutada bat multinazional boteredun direlako. Multinazionalak geroz eta botere gehiago ukaiteak aldaketa lortzea zailtzen duela deitoratu zuten. Besteak beste, justizia klimatikoaren aldeko militante Tadzio Müller alemaniarrak: "Boteredunak gara, gure boterea kalean dugu, bai. Baina multinazionalak botere guztiak jasoz gero, gurea desagertuko da. Akordio horiek debekatu behar ditugu". Hitzarmen horiek oztopatzeko behar gorria azpimarratu zuen, boterea finantzara bideratuz gero herri mobilizazioek ezingo dutelako gehiago fruiturik jaso.

Akordio horiei lotuak izan ohi diren inbertsiogile eta estatuen arteko de-



Merkataritza askeko akordioak (TTIP, CETA...) klima aldaketaren aurkako borrokarako oztopo handia izan daitezkeela nabarmendu zuten, besteak beste, Montrealeko hitzaldiaren emaiilek. Ezkerretik eskuinera: Anne-Céline Guyon, Maite Llanos, Roger Rashi (aurkezlea), Naomi Klein, Clayton Thomas-Muller eta Tazio Müller.

sadostasunen konponbiderako mekanismoei esker, multinazionalak botere publikoak auziperatzen ahalko dituzte, etekinak egiteko bidean oztopo dituztela argudiatuta. Adibideak ez dira eskas, eta munduko lau xokotan dabilta milioiak exijitzen erakunde publikoei. Hots, herri mugimenduen bidez erabaki politikoak lortzen baldin badira ere, azkenean, hitzarmen horiei esker, multinazionalak ukango lukete azken hitza.

Herri mobilizazioak ehundu

“Mobilizatzen jarraitu behar dugu, mugimendu sozialak direlako kausitzen aldaketa handi guztien iturrian”, zioen Müllerek. Alemaniak energia nuklearra alde batera uzteko hautuaren kasua eman zuen adibidetzat, oroitaz azken 35 urteetan eginiko borroka antinuklearraren emaitza zela. Desobediencia zibilaren pausoa emateko deia luzatu zuen. Horrez gain, mugimendu

» **MAITE LLANOS:**
“Parisko COP21 gailurrean adosturiko testua, azkenean, kutsatzeko eskubidea ematen duen AEB eta Txinaren arteko akordio bat besterik ez da”

eta eragile guztiak ehuntzeko deia egin zuten hizlari guztiek, argudioek baino gehiago herri masak duelako eragingo. Enpresa handiak baino eraginkorrago izateko, sare hori nazioartekoa izan behar dela gaineratu zuen Kleinek. Borrokak ikuspegi intersektional batekin eraman behar direla ere esan zuen, immigrazioen egoera jasanezina, auste-

ritate politikak zein arrazakeria azkartzea, azkenean arazo sozioekonomiko eta ekologiko guztiak elkarlotuak direlako. Guztia, demokrazia energetiko ezaren froga.

Kanada mendebaldetik ekialdera eta Quebecen gandi pasako litzatekeen Énergie Est deitu 4.600 kilometroko oliobidearen aurkako protestetan dabilen Anne-Céline Guyon ekintzaileak ere masaren indarra azpimarratu zuen, bi desafio finkatuz: taldeen arteko aliantzekin jarraitzea eta borroka ezberdinek bateratzea. Gaur egun, Quebecoko biztanleriaren %60 eta 300 herriz gora dira Énergie Est proiektuaren kontra. “Arazoak kontzientziarik ez zuten anitz ditugu gure borrokari lotu, gure mezuei esker ohartu dira geroa zalantzan jartzeko duela Kanadaren politika estraktibistak”.

Petrolio erreserbak idortuz doazen bitartean, ustiatu gabeko harea bituminosoei begira dira industria zein Ka-

nadako gobernua. Munduko petrolio erreserba handien hirugarrena du gorde-rik Kanadak haien oihanen azpian. 2014an, egunero 3,7 milioi upel atera zituzten; 5,3 milioira heltzea dute helburu 2030erako. Nagusiki, petrolio guneak Alberta probintzian —hots, Kanada erdigunean— dira kokaturik, eta handik petrolio portuetara bideratzeko, oliobideak eraikitzen dabilta. Énergie Est aitzina doan arren, oliobidearen eraikuntza geldiaraziko dutelako esperantza ez du galdurik Guyonek. Europako eragileekin ere elkarlana eraman beharra nabarmendu zuen. “Harea bituminosoetarik ateratako petrolio zikinaren bezeroak Europan dira, eragin desmasiaz kontzientzia harrarazi behar diegu”.

Clayton Thomas-Muller cree populu autoktonoko kideak berriz, autoktonoen eta zurien arteko elkarlana garatzeko beharra azaldu zuen. Énergie Est oliobideari doakionez, 150 bat komunitate autoktono lirakeke hunkiak.

Autoktonoen filosofiaz elikatu

Klima aldaketa eta kolonizazioa eskuz esku dabiltzala ohartarazi zuen Thomas-Mullerrek: “Lehen apaizak etorri zitzaizkigun gisara, gaur egun multinazionalen ordezkariak zaizkigu heldu, ekonomiaz dugun ikuspegia aldatu behar dugula erranez”. Autoktonoek az-



» **Klima aldaketaren aurkako mobilizazio jendetsuak arrakasta izan dezan parean diren multinazionalen botere guztia hartzea eragotzi beharra nabarmendu zuten hizlari guztiek**

*“Sistema aldatu, ez klima!”
goiburuarekin abuztuaren 9an
Montrealeko Munduko
Foro Sozialean eginiko
manifestazioa.*

kar pairatu behar izaten dituzte politika estraktibista horren ondorioak, hots, lur desjabetze, ur eta aire kutsatze edota immigrazio behartuak.

Presio horien parean, desobediencia zibila aurkeztu zuen aterabidetzat. Autoktonoa izateagatik jasan diskriminazioa, arrazakeria eta bazterketa deskribatuz hasi zuen hitzaldia. “Autoktonoen bazterketan oinarritua da ekonomia, gure lurretarik kenarazi nahi gaituzte, konpainia handien interesetan”. Indigenen filosofiari interesatzeko aholkua luzatu zien entzuleei, klima aldaketak ondorioztatu minez sendatzeko erantzun anitz dituztelako. Hala, Kanada mendebaldeko Manitoba probintzian areagotuz dabilzan tornaduez ba-

besteko bertako autoktono zaharrak hainbat abilezia azaltzen hasiak direla zehaztu zuen.

Etorkizuneko borroka: ura

Ondoko borroka zein izanen den abisatuz bukatu zuen hitzaldia Thomas-Mullerrek: “Petrolio konpainiak kanpo ezartzea lortuko dugunean, uraren salerosketari lotuko dira beste batzuk. Ura sakratua da eta urarena izango da ondoko belaunaldien desafio potoloa”. ■

Ereñotzuko  **Toki Entitate Txikia**
Gure ondare kulturala azaleratzen

Ereñotzu,2
20128 Hernani

943 55 10 00
ereinotzu@ereinotzu.eus

ZER AFALDUKO DUGU?



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazuastabarrena

Londres, 1851. *What shall we have for dinner?* (Zer afalduko dugu?) izenburuko liburua argitaratu zen. Lady Maria Cuttlerbuck-ek sinatutako lanak afaltzeko 42 menu jasotzen zituen, askotarikoak, bi lagunentzako afari xumeetatik hasi eta hamazortzi afaltiarrentzako oturuntza oparoetaraino. Londres viktoriarrean gastronomiarekiko interesa gora ari zen, atzerriko sukaldaritzak lantzen zuten jatetxe kopurua bezala. Errezeta bilduma hura *best seller* bihurtu zen berehala. Liburuaren jatorrizko ediziorik ez da gorde eta, horregatik, ez dakigu zehazki urte hartako zein garaitan argitaratu zen. Baina urrirako agortua zegoen, bigarren edizioa orduan argitaratu baitzen. Gutxienez bost berrargitalpen egin zituzten 1860. urte bitartean.

Gerora jakin zen Lady Maria Cuttlerbuck izengoitia zela –frantziar komedia bateko pertsonaia baten izena da– eta liburua Charles Dickens idazle ospetsuaren Devonshire Terraceko etxean idatzi zela. Adituek uste dute hitzaurrea nobelagileak berak idatzi zuela, baina zalantzarik ez dute edukia Catherine Dickens emazteak idatzi zuela (jaiotzez Catherine Hogarth, 1815-1879).

Eskozian jaioa, 1836an ezkondu zen Charles Dickensekin eta hamar seme-alaba izan zituzten. Badirudi,



Ezkerrean, dickenstarren sukalde, Londresko Dickens Museum-en ikusgai dagoena. Alboan, Charles Dickens emazte Catherineen erretratua, Daniel Maclisek 1847an egina. Handik lau urtera arrakasta izugarria izango zuen errezeta liburua kaleratu zuen Catherin Dickensek.



ordea, liburuaren salmentek gora egingen zuten bitartean, senar-emazteen arteko harremana gainbehera zetorrela. Senarraren esanetan, Catherine ama eta etxeokandrea ezgauza zen eta hainbeste haur izatea leporatzen zion, horrek buruhauste ekonomikoak eragin zizkiolako. Buruko arazoak zituela ere esan zuen. 1858ko ekainean banandu ziren eta Catherinek etxea eta zaharrena ez beste seme-alaba guztiak utzi behar izan zituen. Eta hala ere, senarrarekiko leialtasuna agertu zuen hil arte.

Azken urteotan Catherine Dickens hizpide duten hainbat lan kaleratu dira. *What shall we have for dinner?* berrargitaratu zuten 2005ean, hari buruzko bi ikerlan argitaratu dira, BBCk dokumental bat ekoiztu zuen 2011n... Eta guztiak erabili dute sukaldaritzari buruzko liburua egileak senarrak marraztutako gaitasun ezaren karikaturarekin zerikusirik ez duela ondorioztatzeko. Proposatutako afari bilduma horren atzean emakume praktiko, langile eta eraginkorra dago, eskuzabala, besteen nahiak asetzera emana, obedientea. Emakume viktoriar eredugarria, alegia. ■



NASA

18,5 milioi dolarreko marratxo

1962ko uztailearen 22an *Mariner 1* espazio-ontzia aineratu zen. Garaiko 18,5 milioi dolarreko (egungo 500-600 milioi) proiektuak Artizarra zuen jomuga, baina hegaldiak 294,5 segundo besterik ez zuen iraun. NASAko arduradunek ontzia suntsitzea erabaki zuten, suziriak ez zielako behar bezala erantzuten lurreko sistemen aginduei.

Porrotaren azalpenak anbiguoak eta maiz kontraesankorrak izan arren, 1962ko, 1963ko eta 1985eko hiru txosten bat datoz programazio datuetan akats txiki baten ondorio izan zela adieraztean: marratxo bat falta zen. Arthur C. Clarke zientzia fikzioko idazle ezagunak "historiako marratxorik garestiena" zela esan zuen. ■

Ugaldu



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Landareak berez ugaltzen dira; ingurura begiratu... Geuk egitera, landareak ugaltzea urte osoko lana da. Horretarako era asko dago. Ezagunena hazia ereitea da: fruituak heltzean ondutako haziak jaso, eta sasoiaren erein. Haziak ez diren landareen beste zati batzuk ere erabil daitezke landare berriak sortzeko: hostoa, kimua, puja, urtadarra, aldaska, adarra, altsuma, herrestadarra, sustraia, tuberkulua, errizoma, kormoa, erraboila, erraboiltxoia eta abar. Azken bostak landare amarengandik bereizi eta aldatuz gero, aise itsasten dira; erreserba guneak dira eta, horietatik baliatuz, landare berria osatuko da.

Tuberkuluak dituzte, besteak beste, patatak (*Solanum tuberosum*) eta ziklamenak (*Cyclamen sp.*). Errizomadunak dira kanabera (*Arundo donax*), banbu jendea, ostargi-belar arrunta (*Iris germanica*) eta ostargi-belar horia (*Iris pseudocorus*), kala (*Zantedeschia aethiopica*)... Kormoa dute azafraiak (*Crocus sativus*), azpelarrak (*Colchicum autumnale*), ezpata-belarrak edo gladioloak (*Gladiolus sp.*), alokasiak eta kolokasiak (*Alocasia sp.* eta *Colocasia sp.*) eta azafrai urrinak



MANUEL GARCÍA BARROS-CC BY SA

(*Crocoshia x crocosmiiflora*). Lurpeko erraboila gizentzen dute, adibidez, tipulak (*Allium cepa*), baratzuriak (*Allium sativum*), idi-bihotzak (*Tulipa sp.*), zitoriak (*Lilium pyrenaicum*), barrabas-belarrak (*Oxalis latifolia*) eta moredinak edo hiazintoak (*Hyacinthus orientalis*). Lurgaineko erreboiltxoak ematen dituenik ere bada, baratzuria bera eta tigre zitoria (*Lilium lancifolium*), adibidez, baita zenbait garo eta harrautsi (*Saxifraga sp.*) ere.

Lur gainekoak bezala azpiko herrestadarrak luzatzen dituzten landareek ere zaputzaldi handirik gabe ugaltzeko aukera handiak dituzte. Urrutira gabe, ho-

rien tartetikoak dira marrubiak (*Fragaria sp.*), lezka arrunta (*Phragmites australis*), barrabas-belarra, papiroa (*Cyperus papyrus*), menda ugari (*Mentha sp.*), edaskia (*Ranunculus reptans*), girtangorria (*Ajuga reptans*), askimotza edo arrosario-belarra (*Cynodon dactylon*), batanitzaren (*Stachys recta*) generoko batzuk (*Stachys alegia*) eta ezkerre beltza edo biurda edo txidurka (*Convolvulus arvensis*).

Gure lurraldean urteko bigarren udaberria hemen da. Horrek dakarren izerdialdi berria aprobetxatu, baldin eta aipatutako landare puskekin berriak sortu nahi badituzue. Sasoi da. ■



Piperrak belztuta

Kaltzioak animalion hezurak osatzen dituen era berean landareen egiturak eratzen ditu. Kaltzio ugari behar dute landareek. Kaltzio hori urri duenean, landarearen euste-egitura ahultzen da, eta taxua eskatu. Ondorioak azkar azalduko dira. Piperretan (*Capsicum annum*) alearen alde bat belzten da, mamia mehetuz eta zikoiztuz. Tomatean ere (*Lycopersicon esculentum* edo *Solanum lycopersicon*) nabarmena izan ohi da: fruituaren ipurdia belztu, barnatu eta zakartzen da. Kaltzio falta lurtean ez delako edo landareak behar adina hartu ezin duelako gertatzen da. Bero ikaragarriak direnean eta lurtean nahikoa ur izanagatik behar adina ezin hostoratu duenean ere, arazo hori bistaritzen da. Ura tenperaturari eustera bideratzen du landareak, eta fruituak sufritu... Ur horrek dakartzen mineralak, kaltzioa tarteko, ezin behar bezala gobernatu... Piperrak belztu bazaizkizu, badaezpada, kaltzioa eman lurrari: karea, oskol ehoak, kareharri harea edo hautsa, errautsa...

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO



NOAINGO PARKEA

Zentzumenekin jolasean



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

Hegazkinentzako zementuzko pista luzeaz gain, industria gune zabala ere badu Noainek. Duela hamar urte, ordea, zementuzko eta txapazko inguru horretan herriari aire freskoa ekarriko zion gune berdea hasi zen hazten: Zentzumenekin Parkea.

Zentzumen bakoitzak bere gunea

Bost gunetan daude banatuta Zentzumenekin Parkeko 25.000 metro koadroak. Gune bakoitza zentzumen bati dago lotuta: Dastamenari, baratzea; usaimenari, lorategi mediterraneo; ukimenari, lorategi frantsesa; ikusmenari, lorategi ingelesa; eta entzumenari, lorategi japoniarra, bere erreka eta ur laster soinuarekin. 30 zuhaitz espezie, 95 zuhaika espezie eta 70 lore espezie baino gehiago daude parkean, urteko sasoiaren arabera paisaia aldaketa handiak eragiten dituztenak. Gune berde hori, noski, bizitoki ezin hobea da basoko animalia ugarentzat.

Udalaren hautua

Udaleko langile lorezainen babesarekin, Mikel Baztan izan zen Zentzumenekin Parkearen ideia bultzatzaile nagusia. Egitasmoa ez zen posible izanen, ordea, Noaingo Udalak hartutako jarrerari esker ez balitz. Parkeko lorategietan eta herriko gune berde guztietan lorezaintzako teknika ekologikoak darabiltzate udal langileek, eta esparru horretan aitzindari dira. Zentzumenekin Parkeko sarreraren dagoen Lorenea eraikina ere Udalaren apustu horren beste adibide bat da: lasto fardoekin eraikia dago. Bertan Baratzezaintza eta Lorezaintza Ekologikoaren Interpretazio Zentroa dago, eta urte osoan eskola askotako haur eta gazteak hartzen ditu.

Estatuko nahiz nazioarteko hainbat sari irabazi ditu azken urteetan Noaingo Zentzumenekin Parkeak. Ordea, argi dago parkearekin irabazten atera diren lehenak herritarrak direla. Noaintzat "birika berdea" baita parkea. ■



ALTZAN PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
"mattin" Martiarena, Ainar Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura

iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuaren eskaerak:

☎ 943 371 545
www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Irailak 23: Munitibar

Lekua eta ordua zehazteke.

Irailak 28: Elgoibar

Izarra elkarteak antolatuta.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

ARGIAKOEN GUNEA | GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK |



Parte hartu irailleko zozketan eta irabazi

Hezkuntza, gizarte eta eraldaketa kooperatiboa

Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa ulertzeko gakoak

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Lanki ikertegiak argitaratu zuen 2010. urtean Joseba Azkarragak idatzitako gogoeta liburu hau. Bertan, izenburuan ageri diren hiru kontzeptuak josten ditu egileak, hezkuntza ardatz estrategiko bezala hartuta. Proposatzen den gogoetak bi gairi helden die. Batetik, bizi dugun eta bizi gaituen garaia ulertzeko gakoak inguruko hausnarketabat (individual zein kolektiboa) eta bestetik, zer hezkuntza-eredu eta zer hezkuntza desafio dugun zehazteko hurbilpena. Alderdi teoriko eta abstraktuak zein osagai zehatz eta praktikoak erabiliz, liburu hau hezkuntza-berrikuntzako lerro xume eta zehatz batzuetara hurbiltzen da. ARGIA-ko kideek lau aleren zozketan parte hartzeko aukera izango dute hilabete honetan zehar.



LANKI IKERTEGIA. HUHEZI. MU.

943 79 54 46

<http://mukom.mondragon.edu/lanki/b>

#autoeraketa
#ekonomiasoziala
#lankidetza
#hezkuntzaeraldatzaila

Irailleko zozketak



Txatxilipurdi elkarreak kaleratutako SUA mahai jolasa, euskal mitologiako pertsonaiekin ikasi eta jostatzeko. (4 joko).



Mugarik Gabe GKEak argitaratutako "Desazkundera eta ondo bizitzea" eta "Elikadura burujabetza, genero ekitatearekin" liburuxkak (2 sorta).



Ekologistak Martxan-ek Euskal Zor ekologikoaren inguruan egindako liburuxka eta dokumentala (4 sorta).

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Zozketak ere komunitatea egiten du



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

Zazpi hilabete pasa al dira dagoeneko honetaz idatzi nizuenetik? Sailarekin atzo hasi ginela ematen du eta... "Gunea"ri (zozketa eta sarien txokoa) ARGIA proiektuak egindako azken hausnarketen harira egindako aldaketen berri eman genizuen iragan neguan. Euskal Herriko eragile sozialei leku bat ireki nahi izan zaie, beren lana geure egin eta balorean jarri. ARGIAk bere sentitzen baititu (behin eta berriz errepikatuta ere ez gara hau esateaz nazkatzen) eragile horiek lanean diharduten borrokak eta baloreak.


Eta pentsatuko duzu, irakurle, "bai bai, hori guztia oso ondo dago baina orain artekoa behintzat kontatua didazu hilabete batzuk lehenago; eta ezer berririk esaten ez badidazu hiru lerro baino lehen hurrengo artikulura egingo dut salto".

Leku-aldaketa da berrikuntzatakato bat. Gunea saila, irakurtzen ari zaren orri honen ondora ekarri dugu. Urtetan astekarian egin den zozketa edukiz bete ondoren, ARGIAk bidelagun nahi dituen eragileak izanik eta ikusita beti ari garela ARGIAren lagunak, babesleak, irakurleak, komunitatea... eta ARGIA osatzen duen guztiaz hizketan, ez al da logikoagoa Gunea bera komunitatetik gertu egotea? Hori, behintzat, gure gogoeta.

Sari edo eskaintako produktu bakoitza joango da, gainera, azalpen txiki batez lagunduta. Ulertzen baitugu bultzadaxoa dela bai produktuarentzat eta baita eragilearentzat ere. Nolabaiteko erakusleio izan nahi du ARGIAk, espazio bat ireki eta proiektuak ezagutzera emateko. Baina orain arte balore bati hilabete bat eman bazaio, hemendik aurrera gaiak ere nahastuta joango dira, hau da, balore ezberdinetan oinarritutako produktuen "saskia" eskainiko da hileroko. Astero eragile edo elkarte batek eskaintako materialak izango du protagonismoa. Sari hori izango da zozketa-gai webgunean eta ohiko bideetatik zozketan parte hartzen duten ARGIAko kideen artean. Era berean, hurrengo asteko saria zein izango den ikusteko aukera egongo da.

Ezin egin, ordea, eragileen parte hartzerik gabe, ezta? Horretarako ere aprobetxatu nahi dugu tarte hau, herri mugimenduetan, proiektu ezberdinetan murgilduta dabiltzanei zozketan parte har dezaten eskatzeko.

Produktu edo eskaintzaren bat baduzue herritarari zabaldu nahi diozuen, jarri harremanetan gurekin telefono honetara deituta: 943446815 edo helbide honetara idatzita: gunea@argia.eus. ■



Urriaren 1ean Ondarroan: zatoz ARGIA Egunera!

Aurtengoan larunbatez ospatuko dugu ARGIA Eguna, Ondarroan, "Puntadaz puntada txikitik eragiten" lelopean.

Bezperatik joan nahi duenak ere aurkituko du festarik: *Trantsizioak* erakusketa ikusgai egongo da eta gauean kontzertuak izango dira ranpan.

ARGIA Eguna 10:00etan ibilaldi gidatua eginez hasiko dute goiztiarrenak, eta egunean zehar izango dira jolas hezitzaileak, eragileen azoka, herri bazkaria, kale animazioa, Olinpiada desobedienteak, kontzertuak...

Argiazaleen Topaketan aukera izango duzu ARGIA n lantzen ari garen harpidezko eredu berritua lehen eskutik ezagutzeko eta ekarpenak egiteko.

Ez galdu aukera balioetan oinarritutako festa egin eta zu bezalaxe argiazaleak direnak ezagutzeko!

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerrria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostegunetan, 10:30ean.

DENBORA IRULEAK



Duela gutxi arte ikusgarri eta eraginkor zen ofizio edo lanbide baten itzalera joko dugu *Iruten ari nuzu* abestiaren ildotik. Ezkio-ltsasoko Igartubeiti Baserri Museoan adibidez, besteak beste noski, ikusi ditzakegu lihoa ekoiztetik oihala iruterainoko urratsak eta makinak oro. Irutea, brodatzea edo jostea gaitzat duten kantak nostalgiaz eta malenkoniaz itoak dira.



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Euskal Herrian, leku askotan bezala, oihalgintza ekonomiako alor biziki garrantzitsua zen. Abesti batzuek egoera argiki azpimarratzen dute: hor dira *Iru-ten ari nuzu* ederraren aldaerak, Otxalderen *Kilo Egilearenak* eta *Intxauspeko Alaba dendaria* edo Agustin Etxeberriren 1885eko *Maria Alegiazkoa*...

Molde errealistan aipatzen digute lana. Ardatzak eta ehungailuak itxu-

ratzen dira eta emakume erromantikoak iruten, brodatzen, bastatzen, josten. Euskarak hiztegi aberatsa dauka ofizioaren deskribatzeko. *Oi Pello Pello* zoragarrian, demagun, langintzaren bidaldiak zehazten dira: *irun ezan, astalka ezan, harilka ezan, jos ezan eta...* Bertso guztietan kiloa agertzen da, ardurenean neskaxa baten gerritik dilindan. Egurrezko edo zumezko zurtoinak irun ga-

beak ziren liho, lana edo kalamu hariak biltzen zituen. Kiloa hitza ahoskatzean entzuten da germaniar jatorrizko *knülle* elearen oihartzun urruna.

Mesopotamiako tradizioetik gaur arte, oihalgintza emazteen lana izan da. Gizonak ez zuten kiloa sekula erabiltzen eta erabiltzen baldin bazuten erran nahi zuten jendarte mailetan behera umiliazioraino lerratuak zirela. Industriak

» *Iruten ari nuzu* olerkiaren bertsioak amodio ukatuaren malenkoniari klase borrokaren zantzuak erantsi zizkion

» Otxalderen 1878ko *Kilo Egilearen bertsoek* iruleen eta oihal ekoizleen mundua XIX. mende erditsutik aitzina jada desagertzen zihoala frogatzen dute. (...) Bertsolariak, baldintza ekonomiko berriak ukatuz, neskatxa mozkoten alferkerian errotzen du egoeraren larria

» Denbora irutearen sinbolo bilakatu zen Homerok sortu Penelope pertsonaia uherra. Halaber, hariarekin lanean aritzen denak gugan Sisifo ezindu eta noiztenka ez maitatuaren hautsa harrotzen duke...

oihalgintza irentsi zuenean, nagusi paternalistek emakumeak zituzten proletarizatu. Emakume horiek berak dira izar bihurtzen *Louise-Michel* edo *Merci Patron* filmetako irudietan, industria mota horren krisia bete-betean pairatzen dutela...

*Iruten ari nuzu
kilua gerrian
ardura dudalarik
nigarra begian...*

Nafarroa Behereko eremueta errotu zuten abesti zahar bilatzaileek *Iruten ari nuzu* kanta. Elkarrizketa bat da hiru koplak zinez biluzi eta sakonetan emana. Amodio ukatuaren mina azaltzen da lerro bakoitzean. Maite duen pertsonarekin mintzo da negarra begian duen irulea:

*Nigar egiten duzu
oi, suspirarekin...
Kontsolaturen zira,
bai, denborarekin.*

Irule gaizoaren kideak badaki denbora zauriak sendatzen dituela, eta arintasun larria nabaritzen zaio, bai eta esperientziak dakarren ironia isila.

*Jendek erraiten dute
hal'eztena frango,
Ene maite polita
zu ta neretako.*

Kiloa gerrian biribilketa, jestuak errepikakor direnean, bada hausnartzeko astia. Abestiko andereak bere amodioa sozietate zekenaren eta ulergaitzaren kontra bermatzen du, maitemindu errean bihotzetan anitzetan gertatzen denez.

Intxauspeko alaba dendaria negarrez dabil lanera, apendizak kontsolatzaile. Goizean goiz atera da, herritarren baten ezkaratza joateko, bertan jostun edo arropa konpontzaile zereginetan aritzeko. Gure etxera Ana dendaria zetorren eta adinekoak ahapez ari ziren herrietan gertatzen ziren gauza itsusienaz. Ahapez eta frantsesez, haurrek -guk, alabaina...- ez konprenitzeko gisan.

*Intxauspeko alaba dendaria
goizian goiz jostera joailia,
nigarretan pasatzen du bidia
apendizak kontsolatzaile...*

Kopla sorta hau ere solasaldi bat da, apendizaren eta dendari trebatuaren artean. Apendizak Intxauspeko alabak baino zentzu gehiago duela dirudi, honek baitio zuhurtasunaren xendra seinatzen:

*Maite duzu izanen ez duzuna,
hark derauzu bihotzean pena.
Maita zazu izan dezakezuna
bardin fama baldin badu ona...*

Lerroalde trinko hauetan kolektiboak euskal nor bakunarengan hazten zuten (edo duen) presio sozial ikaragarriaren inportantzia ohartzen gara, fama ona duen ber, dendari xifrituak edonor maitatu dezakeela jakinarazten diolarik laguntzaile abilak. Zerk osatzen du bada ospea? Langilea, fededuna, euskaraduna, dantzari onesta, pilotari trebea, etxeko andere umila eta oroz gainetik irri egitea laket izateak.

Baigorriko haranean ezagun egin zen *Iruten ari nuzu* olerkiaren bertsioak amodio ukatuaren malenkoniari klase borrokaren zantzuak erantsi zizkion. Maitale xifrituak dio fermuki, zaldunik edo maizterrik ez duela laztanduko, baikik eta oinezkoak eta morroiak.

*Iruten ari nuzu
kilua gerrian
ardura dudalarik
nigarra begian.*

*Alde nere leihotik
zalduna bazara
piztuko dut argizaria
oinetzkoarentzat.*

*Morroia babesten dut
nere maitasunez
maizterren zilarrek
ez naute itsutzen.*

Otxalderen 1878ko *Kilo Egilearen bertsoek* iruleen eta oihal ekoizleen mundua XIX. mende erditsutik aitzina jada desagertzen zihoala frogatzen dute. Ez zen aski emankorra:

*Amikuzeko Gilen kilo egileak
etxetik kendu ditu bere langileak:
Sehi maiteak!
Zeren galdu dituen irabaz bideak.*

Jakina denez, langintza industrializatzen eta automatizatzen joan zen orduan

Ingalaterran, Frantziako Lyon hiriko Jacquard tailerretan eta gero Europa guztian. Beztitzekoa gaurkoan Txinatik, Indiatik edo Turkiatik etortzen zaizkigu eginak. European iruten eta josten dira soilik garesti saltzen diren luxuzko jantziak. Bertsolariak, baldintza ekonomiko berriak ukatuz, neskatxa mozketen alferkerian errotzen du egoeraren larria:

*Ez dezake nehun sal kilo-ardatza,
nagusitu baitzaio galtzerdi orratza,
moko xorrotxa!*

Ez da izertu nahi oraiko neskatxa.

*Elhe biltzen dabila galtxoina eskuan,
laneko gogorikan ez baitu buruan,
alfer moduan!*

Oihal guti emaiten kutxaren xokuan.

Sozietatea erabat aldatu zen, abiadura sartu zitzaion tren sareak hedatzearekin. Saltzaileak merkatuetan eta herrietan etxez etxe ibiltzen ziren modaren araberrako oihalak aurkeztuz. Lana utzi zen eta kiloak, eta ehungailuak museotara eramane ziren.

*Gazte irule guti da Eskual Herrian,
bat ez dugu ikusten kiloa gerrian,
ate hegian,
oi, zer prendak horiek saltzeko ferian.*

Otxalde agian poztuko zen egun Lehengo izeneko ekitaldietan (Hazparne, Baigorri) miretsi daitezkeelako iruteko baliatzen ziren arnesak. Lan horretan aritzeko teknikak ezagutzen dituzten jende apurra badira oraino, behatzez trebe eta arduraz ausart.

Zergatik ukitzen gaituzte hainbeste iruleen bihotzeko penek? Literaturaren eta poesiaren sor-mugaraino eramane gaitu erantzunak, ahuntzentzat zizelkaturiko Ithakako uharte harritsura eta jainkoeu haserreak bertotan kontatzen ziren mendeetara hain zuzen. *Odisea*-ko Penelope, halatan, irudikatzen dugu manta bat iruten, josten, bastatzen egunez, eta gauez, lan xehea desegiten, Ulisesen lekua ezkongai bihi batek ebatsi ez ziezaion. Denbora irutearen sinbolo bilakatu zen Homerok sortu pertsonaia uherra. Halaber, hariarekin lanean aritzen denak guban Sisifo ezindu eta noiz-

tenka ez maitatuaren hautsa harrotzen duke...

Penelopek menturaz, Ulises kanpoan egon zen hogeit urteetan, zenbait negar isuri zituzkeen Euskal Herriko iruleon antzera. Baina bazekien funtsezko oihala sortzen ari zela, jaiotzean niniak lehen aldikoz troxatzeko eta hiltzean lurrean ehorztekodiren gorpuak gerizatze eta inguratze baliatzen zena. Hil mihisea haztatzean nabaritu dezakegu gauza arruntaz haragoko zerbait dugula esku artean, gure jende izaera soilaren zedarriak gainditzen dituen humanitate zati bat hots.

Abestia Kepa Junkerak grabatu diskoaren batean Miguel Boserene edo Benat Axiariren ahotsez entzun dugu hondar urteotan eta Nemesio Etxanizek (1899-1982) antzerki tragikoa eskaini zuen 1952an Gipuzkoako ikusleak ausatzeko, kantaren giroa eta tramak birziklatuz.

Iruleak, galduak izan arren, begiak itxi bezain laster, eskumenean dauzkagun mitologiako munduak lotzen ditu eta berehala, haririk hari, ezeztatua uste genuen harremana osatzen doa. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Totemak



Igor Estankona



Argia

PERU MAGDALENA

Elkar, 2016

Badaude gai bat jorratzen duten liburuak deskripzioan oinarrituak, badaude hausnartzeko liburuak filosofiaren zidorretan galtzen direnak eta badaude, azkenik, sentitzeko liburuak. Hauen sokakoak iruditu zaizkit beti Peru Magdalenarenak. Berriztarrak ez du hitzik alferrik esaten, ez du pintzelkadarik zentzurik gabe ematen, ez du jantzi bat funtsik gabe aldean eroango. Bere obra artistikoa, bidaiak, bizitzaren gazi-gozoek... denak dira bilaketa estetiko eta are aszetiko baten bide, eta poesia, ezinbestean, arimaren lanabes. *Hutsik* (Elkar, 2008) irakurri nuenean begitandu bazitzaidan ederra zentzu sakratuan, *Argia* honekin ere haren kritika egin nuenean nioen gauza bera diot, alegia, pentsakor eta, era berean, hunkiturik uzteko gaitasuna dauka liburu honek, eternoaren kalitatea dauka: “gau garbian izarrak begiratzea/ zeure azaleko oreztak begiratzea/ unibertsoak errepi-katzen dituen patroiak/ edertasun berari begira/ naiz lokartzen”.

Interesgarriak dira, halaber, sorkuntza poetikoari buruz batez ere liburu aurren-berrian agertzen dituenak, arestian aipatu dugun kezka estetiko esanahiarekin lotuz: “ene poesiak/ apuntatzen duena bilakatu gura luke/ hitz hutsezko ontzia abandonatu/ horitu eta desegingo den liburua utzi/ eta deskribaezina den dardara bezala segi bizirik/ hitzun gutxi batzuen artean oihartzun eginez// hitzez eta kontzeptuz ehizatu ezin dudana/ laino miresgarria da ene poesia/ oraintxe bertan jaiotzen ari den/ zaldikume baten azalaren usaina/ izartu berritan oroitu ezin dudana amets izartua”.

Poesiaren durundi hori, haurtzaroko irudiekin hasi eta errealtatearekin urtzen den argi zuri erre batean bukatzen dena, Magdalenaren ekarpen itzelena da. Osatzeko eta izpiritua indartzeko poesia-eite bat da, kultua baina sotila, eta meditazioaren eta errezuaren antza har dezake uneka. Harrigarriro leuna, arina eta jostagarria da ostera liburua. Esan dezagun, beraz, zabalik egonez gero misteriorik ez daukan mezua dakarrena, bizitzak berak legez: handia ematen du itxura batean, pentsatzeari utzi eta biziz gero *festina lente* doan ibaia da.

Eta kritika labur-labur honetan –zeinaren bidez hertsiki galdegiten baitizuegu *Argia* hartu eta irakurtzeko– azaldu dugun guztia Peru Magdalenari konturatu barik ateratzen zaiola dirudi; hori da lanketaren eta berezkoa daukanaren sintesiaren seinale. ■

Peru Magdalena Arriaga poeta. Idazlea izateaz gain, bertsolaria eta margolaria ere bada.



» TELEGRAMA

Irailaren 1ean, ostiralez, Iruñeko Katakarak-en, 19:00etan: Lisabören baterijole ohi **Ivan Zabalegiren kontzertua** *Nire: hamabost* emanaldiaren karietara. Irailaren 3an, nesken egünean, **Barnekaldo irakurleen klubaren** ekitaldia Mauleko Mediatekan, Itxaro Bordaren *Ultimes déchéts* liburuaren inguruan ariko dira, idazlea bera han izanen delarik **STOP** Irailaren 3an, ebiakoitzez, **Lapurdiko Makean Kabalkada** antzerki herrikoia izanen da herriko plazan, 21:00etan **STOP Petti&Etxeko Uztaren** hurrengo kontzeuak irailaren 3an Alliko jaietan (Larraun haranean) eta Elgoibarreko hil honen 22an, Sotoko hotsak-en 22:30etan **STOP**

» DISKOA

**Erdibidean**

EZIN IZAN

Autoekoizpena, 2016



Iker Barandiaran

Elkarrekin aritzeko nahiak egiten du edozer egingarri

90eko hamarkada urrun ikusten da gaur egunetik; eta urrun ikusten da, baita ere, musika estiloak hatzamar gutxirekin zenbatu zitezkeen garaiak. Hala, garai hartan bat-batean ezaguna egin zen hardcore melodikoa delako estiloa, askok ezinezkotzat zutena (melodikoa izan daiteke hardcorea?). Bada, horien artean oso ezagunak egin ziren Kaliforniako olatutik zetozten Green Day, NOFX, Offspring eta, zergatik ez, baita Bad Religion ere.

Hemen, baina, aitzindaria Ezin Izan taldea izan zen eta haien kontzeptua, lehen aipatutakoekin alderatuta, aski desberdina. Pop-ari edo melodia oso borobilei abiadura eta distira eman beharrean, ordura arte gustuko zituzten hardcore-punk erritmo eta melodia estuagoak ahotsak lagunduta goxatu egin zituzten, eta punk zein hardcoreak –oinarrian– izan dituzten hitzei, problematikei eta egiteko moduei –zuk zeuk egizu– eutsi zioten irmo, umiltasunez eta koherentziaz.

Esan bezala, laukotea 90eko hamarkada hasieran jaio zen Donostialdean, orduko Buenawixta etxe okupatu eta mirarien fabrika hartan, eta 1992an maketa kaleratu zuten –kasetean–. Gaztetxe eta etxe okupatuetan emanaldiak egiten aritu ostean, 1995ean *No poder ser* single dotorea argitaratu zuten

Espainiako Estatu osoan zabaldu zena. Taldearen helburua mezuak helarazi eta disfrutatzea izan da beti eta bimirurteko hasieran taldea besterik gabe desegin zen. Horren aurretik, baina, taldearen kantutegia jasotzen duen *Nora goaz?* disko luzea argitaratu zuten Trintxerpeko Cooperación Records-en bitartez.

Etorri ziren bezala, zaratarik atera gabe, beraiek beti izan diren bezala, desagertu zen taldea. Eta kausa puntuale-tarako inoiz elkartu baziren ere, ez zen bestelakorik. Baina iaz hiru partaidek (Pablo, Sani eta Jabi Dk) bat egin, berriro elkarrekin aritzeko gogoia piztu eta Lander baxu jotzaile berria batu zuten. Jarraitzeko asmotan daude eta entsegu lokalean zazpi kantu grabatu dituzte, James Hamiltonek (Bap!, Anari, La Jodedera...) nahastu eta masterizatu dituenak. *Erdibidean* autoekoiztutako CDa da, umila eta apaingarririk gabea. Diskoari izena ematen dion *Erdibidean* piezak Europa iparraldeko punkera eraman nau; *Nora goaz?* eta *Ibiltari* ezagunek taldearen marka dute: hardcore-punkaren kadentzia eta Jabi gaineratik leun abestu-errezitatzen. *Zorabioa*, *Agur*, *aurrerapide* eta *Sarraskia*, baina, erritmo aldaketek, ahots erregistro zabalagoek eta ñabardurek jantzi dituzte. Eta lana ixteko ezaguna dugun *Polvo* gaztelaniaz abestutakoak, hardcore-punketik aldendu gabe askoz kutsu misterioitsua goa batzen du, akaso Bap!-en azken garaian egin zuenaren tankeran, eta akaso zirkulua itxi ez dadin. ■

Ezin Izan talde donostiarra berriz ere eszenatokian.



Ase

EMANALDIA

Andre Zuriaren jaietako kontzertuetako batzuek: Izaki Gardenak, Niña Coyote eta Chico Tornado, Montauk, Capsula eta Willis Drummond..



AMAIA OCA

Capsula hirukotea txosnetako karpa handian.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

Zer diren hirietako jaiak: urte guztian zehar egin diren kontzertuak (askotan instituzioen trabez gaindi) batera baino gehiago izaten dira epe jakin batean. Askotan, okitzeraino. Baina kexaka aritzea baino, probestea izaten da kontua, eta hauexek pasa diren Gasteizko jaietan gozatu ahal izan genituenak.

Izaki Gardenak-ena izan zen ikusi genuen lehen emanaldia. Abuztuaren 5ean jo zuten, Aihotz Plazan, behin gauerdia pasata. Nabarmena zen etxean zeudela, are gehiago taldekideak aldatu direnetik eta guztiek Gasteiz dutenetik bizileku. Kontzertu berezia izan zen, indartsua, eta plaza bete ez bazen ere, zeudenak gustura zeudela agerikoa zen.

Hilaren 7an, berriz, Niña Coyote eta Chico Tornado txosnetako karpa txikian. Bi laguneko banda da, baina, efektuak eta hainbat anplifikagailu lagun, belarri, gehiago direla dirudi. Baliabide hauek ondo darabiltza Koldo Soretak,

eta bestela planoak izango zatekeen soinuari askotariko testurak gehitzen dizkio. Emanalditik zerbait aipatzekotan, DUT taldearen *Haize Eza* jo zutenekoa azpimarratuko nuke, batez ere kantuak berak sortzen duenagatik, ez hainbeste taldearen exekuzioagatik, jatorrizko kantuari ez baitiote askorik aportatzen.

Abuztuaren 8a zen, baina, egun seinalatua gutako askorentzat. Hasteko, hiruzpalau kontzertu besterik ez daromatzen Montauk taldekoak, Coyote eta Tornadoa ikusitako agertoki berean. Kutsu intimistako rocka egiten dute gasteiztarrek, eta intentsitatearekin asko jokatu. Beñat Goitia abeslariaren hitzetan ez zen eurentzako plazarik onena, baina egoki defendatu zituzten beraien estreinako *Bilaketan* laneko kantuak. Ruper Ordorikaren *Zaldiak Negarrez*en bertsioa izan zen gaueko lehen sorpresetako bat.

Capsula hirukotea zetorren segidan, eta jendea eszenatoki handira gerturatzeko hasi zen bizkor. Entzuleria hotz baten aurrean hasi ziren euren psikodelia kutsuko rock kantuak eskaintzen.

Delirium Tremensen *Ikusi eta Ikasiren* bertsioak ez zuen giroa berotzen lagundu, egia esan. Eta saiatu zirenik ezin uka. Martin gitarra jolea entzuleria berotzeko lanetan gelditu gabe aritu baitzen. Eta eman zuen fruitua: kontzertu amaieran festa giroa zen nabarmen Iggy Popen *I Need Somebody* eta David Bowwieren *Suffragette City* jo zituztenerako.

Eta festa giro hori airean zela igo ziren Willis Drummond-darrak. Hiri berezia da Gasteiz beraietzat, eta bertako askorentzat ere talde berezia da; planetak lerrokatuta, beraz. Hasi eta bukatu, berebiziko kontzertua eskaini zuten, eta berriz ere argi geratu zen gaur egun Euskal Herrian taula gainean entzun daitekeen talderik indartsuenetakoa direla. Ez da asko aldizkari honen orrietan beraien EHZko kontzertuaren kronika idatzi zuela Andrea Zubozkik, eta gutxi asko berdintsua izan zenez, hura irakurtzera gonbidatzen zaituztet.

Hauek, eta gehiago izan ziren pasa diren jaietan; baina hauexetaz besterik ezin izan genuen gozatu. Espero ondo aukeratu izana. Ni, behintzat, ase ninduten. ■

Fàtima Taleb. Garaipenaren ikur



Marokon Letra Modernoetan lizentziatu ondoren, 22 urte zituela iritsi zen Taleb (1976, Berkane) Badalonako La Pau auzora, bitartekaritza kulturalaren eta bizikidetzaren alde lan egitera. Guanyem Badalona en Comú plataformaren bortzgarrena zen maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan; Xavier Garcia Albiol (PP) udaletik kanpo utzi ondoren, egun, Parte Hartze eta Bizikidetzeta Saileko zinegotzia da.

“Emakume musulmanok jendeak ezagutzen ez dituen eskubide asko ditugu”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

Harro

“Badalonara iritsi nintzenetik bitartekaritza kulturalaren arloan lan egin dut, kaletik. Duela gutxi arte ez nuen politikarekiko interesik, baina Guanyem Badalona en Comú plataformaren bitartez aukera ikusi dut, Garcia Albiolen politika arrazistek eragindako kaltearen ondotik premiazkoa zen bizikidetzaren eta berdintasunaren aldeko lan hori egiteko. Harro nago emakumea eta musulmana izateagatik, eta nola ez, zapia eramateagatik. Hau aldaketa aro berri baten hasiera besterik ez da”.

Laster hogei urte beteko dira Badalonara iritsi zinenetik. Antza, harreman berezia duzu hiriarekin.

Hain da horrela, kosta egiten baitzait hitzez azaltzea. Maite dut, sakonki. Horregatik parte hartu izan dut, hiria hobetzeko asmoz, aukera izan dudana ekimen guztietan. Kultura aniztasunak ezaugarritzen du Badalona, eta horretaz baliatu behar dugu. Bada garaia ulertzeko aniztasuna aberastasuna dela eta ez mehatxua, aurreko gobernuak zabaldu zuten bezala.

Badalonako Udala aitzindaria da, emakume musulman bat –eta zapiarekin– zinegotzi duelako. Nola bizi izan duzu?

Konplexua izan da, batez ere Badalonan Xavier García Albiolen (PP), alkate zela, azken urteetan zabaldu zituen politika arrazisten ondoren. Hark hiria goitik behera zatikatu zuen eta Badalonako biztanleriak PPK erein zuen ikuspegia erraizetan du. Ez zuten espero aurreko gobernuak errefusatzeko zuten hori,

zapia daraman emakume musulmana Udalean ikustea, alegia.

Harrera ona izan duzu?

Denetarik pasa izan zait; badira kalean iraindu eta tuztatu nautenak, baina gauza positiboekin gelditzen naiz. Jende gehiena poztu baita eta hori aurrerapauso handia da berdintasunaren aldean. Munduko txoko guztietatik jaso ditut zorion mezuak.

Etorkinentzat nolako zen García Albiolen politikekin bizitzea?

Oso gogorra. Albiolen aurreko gobernuek bizikidetzaren eta berdintasunaren alde landu zituzten neurriak bertan behera utzi zituzten. Eta ez hori bakarrik, desberdintasunarekiko beldurra eta gorrotoa sustatzea izan zen Albiolen lehentasuna. Adibide gisa, nik orain dudana saila, Parte Hartzea eta Bizikidetzeta, bazegoen Albiolen garaian, baina iritsi garenean edukirik gabe aurkitu dugu.



Fátima Taleb, Badalonako Udalean zinegotzi karguaren agintza egiteko unean. Eskuinean eserita ageri da Xavier García Albiol ordura arteko alkatea, bestiek beste adierazpen xenofoboak egiteagatik nabarmendutako PPko politikaria.

Azken hauteskundeetan ostean lortu zenuen Albiol udaletik kanpo uztea. Badago agintza egin zenueneko argazki sinboliko bat, munduari buelta eman diona.

Une hori ezin hobeto gogoratzen dut. Bere parean nintzen eta konturatzen nintzen bera sufritzen ari zela. Jakina, nola ez zuen sufrituko! Legealdi guztian lan egin zuen atzerritarrek eskubiderik ez zutela zabaltzeko eta ni, beloarekin, bera gobernutik kanpo uzten ari nintzen unean ezin zen edonola egon. Gizajoa! Zinegotzi agintza egin nueneko argazkia Badalonaren garaipenaren isla da.

Zenbaterainoko garrantzia izan du aldaketak Badalonako komunitate musulmanarentzat?

Hiritar gisa ate bat ireki zaie. Baina komunitate musulmanari ez ezik, baita Badalonan bizi diren komunitate guztiei ere. Hau hasiera besterik ez da, ziur naiz hurrengo hauteskundeetan beste erlijio eta kultura batzuetako hautagaiak egongo direla.

Solas egin dezagun zapiren betiereko eztabaidaz.

Erabat fikziozkoa da. Zapiak ez du ezer eragotzen, ez aktibista izatea ezta politikaria izatea ere... Nik, adibidez, zapia daramat nahi dudalako eta beloa daramagun gehiengoak egiten dugu uste osoz. Noski, ezin dugu ahaztu gizarteak edo familiak behartuta janzten dutenak ere badaudela.

Egunotan pil-pilean da burkiniaren arazoa. Bada burkinia edo beloa eramatea askatasun urraketa dela uste duenik...

Nik erabakitzen badut beloa janztea eta zuk debekatzeko badidazu, orduan ere akabatzen ari zara nire askatasuna. Ez nago ados beloa janztera behartzen dutenekin ezta kentzera behartzen dutenekin ere. Emakumeak izan behar du erabakitze eskubidea.

Nola ikusten duzu feminismoa komunitate musulmanean?

Emakume musulmanok jendeak ezaigutzen ez dituen eskubide asko ditu-

gu eta, zalantzarik gabe, feminismoak indarra du islamean. Guk duela 1.400 urte baino gehiagotik ditugu eskola, ondare eta askatasunez ezkondu eta banantzeko eskubidea. Zentzu askotan aitzindariak izan gara hemengoarekin alderatuz.

Egia da denborarekin galtzen joan garela hainbat eskubide, baina ez islaren erruz, jende askok pentsatzen duen bezala, baizik eta kolonialismoak, politikak edo gizarteak lapurtu dizkigulako. Edonola, emakume musulmanok borrokatu egiten dugu horiek berreskuratzeke.

Islamaren inguruko informazio falta dagoela uste duzu?

Zarata gehiegi dago. Ez nuke orokortu nahiko, baina batetik, hedabideek ez dute askorik laguntzen, eta bestetik, gizarteak oro har ez du esfortzurik egiten hedabideek diotenetik haratago heltzeko. Beraz bai, ezjakintasun handiegia dago, orobat. ■



“Otegiren burkinia da problema” Hauteskunde Batzordeko kide baten arabera

“Gaitasun guztiak estaltzen dizkio burkiniak eta horrela ezin jakin hautagai izatea posible ote duen”, azaldu dio Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeko ele-dun batek Beranduegiri. Baieztatu duenez, oportetean erabili duen bainujantzi hori da bere hautagaitzaren legezkontasunaren inguruan sortu den polemikaren iturburua. “Jainkoak libra gaitzala frantses laiko horien antza izatetik, baina uste dut azkenean legez ezarri behariko dugula burkiniaren debekua”, gaineratu du. “Bueno, eta behin hasita, beste debeku asko ere bai, debalde da eta”.

SAREAN ARRANTZATUA

Gora bihotzak!



Larruzco azoca franciako pasealecuan



Merkatarien mobilizazioak iragarri dituzte, TTIP akordioaren negoziazioaren porrota ezagutu eta gero

TTIP hitzarmen ospetsuaren negoziazioak ez aurrera eta ez atzera daudela adierazi du Alemaniako Gobernuan asko agintzen duen ministro batek. “Oraintxe jakin dugu amerikanoak eta europarrak ez direla ados jartzen merkataritza askeko akordioa egiteko”, ke-xatu da Bilboko Zazpi Kaleetako dendarien elkarteko buru Miren Begoña Salduondo, “guk ez genekien merkataritza preso zegoenik ere! Honek erantzun azkarra eskatzen du, denda-ordutegitik kanpo betiere”.

Eskuineko prentsa, berriz, harro agertu da TTIPen porrotaren berri izanda-koan: “Ikusten? Guk bagenekien ez zue-

la merezi gai honetaz asko hitz egitea. Azkenean ez da egingo eta!”.

Albiste guztiz baieztatu bitartean, Europako Batzordeak konfiantza eskatu die herritarrei. “TTIPek kale egin arren ez ditugu gure betebeharrei muzin egingo eta arduraz jokatzeko jarraituko dugu: luze gabe bururatuko zaigu jendea izorratzeko beste zerbait”, Helmut Pikenauer bozeramalearen erranetan. Manifestazio irudimentsuen antolatzailer profesionalen federazioko kideek lasaitu ederra hartu dute hitzok entzutean: “Uf, eskerrak!

Ea zer egingo genuen bestela lip-dubak grabatzeko erosi berri ditugun 124.675 kamerekin!”.




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK


ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545
HARPIDE@ARGIA.EUS
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
<input type="checkbox"/> ARGIA Erean jaso nahi dut	
<input type="checkbox"/> ARGIA Erean jaso nahi dut	
<input type="checkbox"/> ARGIA Erean jaso nahi dut	





1516 2016

Bake-itunak

San Telmo Museoa, Koldo Mitxelena Kulturunea

2016-6-18 / 2016-10-2

BAKEA
PAZ



Antolatzaileak



DSS2016.EU



DSS2016.EU: Erakunde laguntzaileak



Donostia Udaia
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Alderdiak
Foraldea Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

donostiakultura.com



Babesle-erokorra



Laguntzaileak



FU JAPAN
Festi



Gobierno
de Flandes



BARAKALDEA



eitb



EL DIARIO VASCO



kutxa

San Telmo Museoa: Enpresa ongieleak



berria



SEIZ



GARA



naiz

